

Arantxa Elizondo Lopetegi

# Emakumeen eskubide politikoak: Instituzioak eta alderdiak

# Giza Eskubideak

Deustuko  
Unibertsitatea

• • • • • • • •

**Giza Eskubideen  
Institutua**



# **Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak**



# Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak

## 9. zenb.

Emakumeen eskubide politikoak:  
Instituzioak eta alderdiak

**Arantxa Elizondo Lopetegi**

Bilbao  
Deustuko Unibertsitatea  
2000

**Erredakzio Kontseilua:**

Jaime Oraá  
Xabier Etxeberria  
Felipe Gómez  
Eduardo Ruiz Vieytes

Argitalpen hau, zatiz edo osorik, azalaren diseinua barru dagoela, ezin kopia daiteke, ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikaz, dela kimikaz, dela mekanikaz, dela optikaz, dela grabazioz, dela fotokopiaz, baldin eta lehendaurrez argitaratzailearen baimenik ez badu.

Argitalpen hau paper ekologikoan inprimaturik dago.

© Deustuko Unibertsitatea  
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbo

ISBN: 978-84-9830-559-3

## Aurkibidea

---

<b>Sarrera</b> .....	9
<b>1. Giza Eskubideak eta Emakumeen Eskubideak</b> .....	11
1.1. Funtsezko Eskubideen bilakaera historikoa .....	11
1.2. Nazioarteko ekarpenak: Nazio Batuen ariketa. ....	14
<b>2. Emakumeak eta instituzioak</b> .....	19
2.1. Emakumeen Eskubide Politikoak .....	19
2.2. Emakumeen presentzia instituzionala ikuspegi konparatuan. . .	22
<b>3. Emakumeak alderdi politikoetan</b> .....	29
3.1. Europako alderdien hainbat datu .....	30
3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko alderdiak. ....	35
3.3. Emakumeak ordezkaritza karguetan. ....	38
3.4. Zer egiten ari dira alderdiak? .....	40
<b>4. Balorazioa: argiak eta itzalak</b> .....	47
<b>Bibliografia</b> .....	49
<b>Eranskina: Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Eza- batzeko Konbentzioa</b> .....	53





## Sarrera

Emakumeen Eskubideak Giza Eskubideak dira. Emakumeen Eskubiderik gabe Giza Eskubideak ezin dira gauzatu. Baten batek esaldi hauek sobera daudela pentsa dezake, Giza Eskubideak emakume eta gizon guztiei dagozkielako. Hala ere, ez dugu ahantzi behar historian zehar orain gutxi arte adierazpen hauek ez direla onartu. Gaur egun lortu duten zilegitasuna, guretzat begien bistakoa den legitimitatea, borroka bukaezin, ilun eta tinko baten ondorioa da. Funtsezko Eskubide eta Askatasunen unibertsalitatea printzipio-mailatik errealiteraino eramateko bidea oso luzea izan da, eta eraikuntza horretan lan teoriko anitz eta ahalegin praktiko ugariak partehartu dute.

Orain esku artean duzun koadernoaren xede nagusia ahalegin hori azaltzea da, bide luze horren kontaketa laburra egitea, alegia. Emakumeen Eskubideen aldeko mugimenduaren gora-beherak ez dira zehazki aztertuko, hau ez baita lan honen helburua; horren ordez, emakumeek jarraitu duten bidearen zati bat azpimarratuko da, hiritarren mailara iristeko eman dituzten urratsak, eskubide politikoen arloa.

Noiz lortu zituzten emakumeek euren eskubide politikoen onarpen orokorra? Eta zer gertatu zen horren ondoren? Zer egin da Nazioarteko mailan emakumeen eskubideen alde? Zenbat emakume dago egungo instituzio politikoetan? Nolakoa da Euskal Autonomia Erkidegoko egoera? Ondorengo orrialdeetan honelako galderei erantzuna eman nahi zaie. Horretarako gai desberdinak jorratzen dira. Lehenik, Giza Eskubideen bilakaera aipatzen da, emakumeen eskubideen integrazio zaila nola izan zen ikusiz. Ondoren, Nazio Batuek emakumeen eskubideak bermatzeko burutu dituzten ekimenak azalduko dira. Emakume eta instituzioen arteko harremana ere aztertzen da, eta horretarako

emakumeak boterera nola sartu diren adierazten dituzten datu ugari aurkezten dira. Eta azkenik, alderdi politikoei buruzko ikerketa egiten da, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera EAE) kasua kontuan hartzen delarik.

## 1. Giza Eskubideak eta Emakumeen Eskubideak

### 1.1. *Funtsezko Eskubideen bilakaera historikoa*

Gaur egungo sistema demokratikoen sustraia XVIII. mendeko ilustrazioan kokatzen da, garai hartan ondorengo antolaketa politikoen printzipio nagusiak finkatzen hasi baitziren. Ilustrazioaren esanahi politikoa eta filosofikoa oso zabala izan arren, bere ekarpen nagusia boterearen oinarria jaungoikoarengandik gizarteratu zuela da. Pentsakera honen arabera boterearen antolaketa gizartean bizi diren gizakien arteko pak-tu batetik sortzen da. Gizarteak elkarbitza arautzeko eta antolatzeko helburuarekin boterea sortzen du, gizakiak botere horren sortzaile eta iturri izanik, alegia, boterea baino garrantzitsuagoak dira. Gizakiek, gi-zaki izateagatik, berezko duintasuna dute eta duintasun horrek zenbait eskubideen jabe egiten ditu. Giza Eskubideen egungo ikuspegia XVIII. mendeko bukaerako Estatu Batuetako Independentzia eta Frantziako Iraultzan hasi zen. Garai hartan Giza Eskubideen testu garrantzitsuene-tarikoak egin ziren: *Virginiako Eskubideen Deklarazioa* (1776) eta *Gizon eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioa* (1789).

Hala ere, ilustrazioaren printzipio orokor eta unibertsalak, berdinta-suna eta askatasuna, praktikan ez ziren gizaki guztietara zabaldu, hase-ratik gizonezkoei zegozkien ezaugarriak izan baitziren. Ikuspegi muga-tu honen aurkako jarrerak berehala piztu ziren. Esaterako Olympe de Gouges idazle frantsesak 1791an *Emakume Hiritarren Eskubideen De-klarazioa* idatzi zuen: Frantziako Iraultzak bakarrik gizonezkoen eskubi-deak aldarrikatu eta populazio erdiaren zapalketa mantentzen zuela sa-latu zuen: Mary Wollstonecraf idazle ingelesak 1792an *Emakumeen Eskubideen Errebindikazioa* argitaratu zuen. Berdintasunaren aldeko testu sutua da, batez ere hezkuntzarako eskubidea azpimarratzen

duena. Lehen pentsalari feminista hauen ostean Sufragismoa sortu zen, emakumeen mugimendu antolatua, hasieran Estatu Batuetan eta ondoren beste hainbat tokietan ere. Sufragismoa emakumeen eskubide politikoaren eskakizunaren aldeko mugimendua izan zen eta bere sorrera 1848an finkatzen da, *Seneca Fallseko Deklarazioa* egin zen unean. Deklarazio hau Estatu Batuetako Independentziaren Deklarazioaren egokitzapena da, emakumeen zapalkuntza azaldu eta euren eskubideen zerranda jasotzen duena, besteak beste botua emateko eskubidea. Hemendik aurrera geroz eta emakume gehiago mobilizatu ziren botua emateko eskubidearen baitan. Bitartean Inglaterran John Stuart Mill eta Harriet Taylorren obrak argitaratu ziren, liberalismoa eta pentsamendu feminista elkartzeko asmoarekin. Stuart Mill-ek 1869an Europako Sufragismoaren oinarritzko testua bilakatu zen *Emakumeen Menperakuntza* idatzi zuen. Obra honen abiapuntuaren arabera emakumeen zapalketa gizateriaren garapena oztopatzen duen injustizia itzela da. Errebindikazio aitzindari hauen indarra oso handia izan arren, emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak oraindik bide luzea egin behar izan zuen.

Funtsezko eskubide eta askatasunak giza duintasunaren adierazpen zehatza dira. Eskubide hauek definitzeko eta aplikatzeko saiakera ugari egin dira eta horren islada Giza Eskubideen Teoria zabala da. Teoria hauen guztien funtsa eskubideek Estatuari mugak ipintzeko tresna dira. Oinarri politiko nagusi hau printzipio juridiko eta konstituzionala bilakatu da eta egungo Estatu demokratiko guztiek euren funtsezko arau eta legeetan jasota dute.

Estatu Batuetako Independentzia Deklarazioetan eta Frantziako Hirutarren Eskubideen Deklarazioan jasotako eskubideak eskubide zibil eta politikoak dira, *eskubideen lehen belaunaldia* esan ohi den bezala (Gómez, 1998: 10). *Bigarren belaunaldiako eskubideak* xx. mendearen hasierako langileriaren mugimenduaren ekarpena izango dira, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak alegia. Bigarren belaunaldiko eskubide hauen ezaugarri nagusia instituzioen ekimena eta ariketa eskatzen dutela izango da. Hemendik aurrera hiritarren ongizatea eta bizimodu duina bermatzeko Estatuaren eskuhartzea beharrezkotzat hartuko da.

Bigarren Mundu-Gerraren ostean Giza Eskubideak funtsezko gaia bilakatuko dira. Gizateriaren historian izandako gerrarik latzena piztu zuten sistema totalitarioen aurka Nazio Batuen Batzar Orokorrek *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* onartu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Hizkuntz guztietara itzulitako testu hau Nazioarteko Erakunde batek egindako lehen tresna juridikoa izan zen. Honez gero, gizakien duintasun, askatasun eta berdintasunaren babeserako dokumentu juridiko eta politiko nagusienetarikoa da. Esan ohi da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bost motako eskubideak daudela (Carrillo, 1999:

57). Lehenik, gizakien *berezko eskubideak* (3, 4, 5, 6 eta 7. art.); bigarrenik, gizakien *segurtasuna bermatzeko* eskubideak (8, 9, 10, 11, 12 eta 14. art.); hirugarrenik, gizakien *eskubide politikoak* (18, 19, 20, eta 21. art.) laugarrenik, *eskubide ekonomiko eta sozialak* (17, 22, 23, 24, 25, 26 eta 27. art.); eta azkenik, gizakien *bizitza juridiko eta sozialari* zuzenduriko eskubideak (13, 15 eta 26. art.).

Zalantzarik gabe, Giza Eskubideen aldeko borroka Nazio Batuen ardatz garrantzitsua izan da betidanik. Urteetan zehar Deklarazioan jasotako eskubideen esanahia zabaldu egin da, 1948ko edukia errealitateari egokituz. Eskubideen mamia moldatu egin da, batetik eskubide berriak azaldu eta bestetik eskubideen subjeto berriak definitu direlako. Honek ez du esan nahi aurreko eskubideak baliogabetu edo gainditurik daudenik, ikuspegi berriek egindako proposamenak zerrenda aberastu dutela baizik. Honela, 1970 hamarkadatik aurrera, eta batez ere deskolonizazio prozesuaren ondorioz, *hirugarren belaunaldiko eskubideak* agertu ziren: garapenerako eskubidea, bakerako eskubidea, ingurunerako eskubidea edo laguntza humanitarioa jasotzeko eskubidea (Gómez, 1998: 13). Bestalde, eskubideen subjetoetaz ere hitzegin daiteke, gizakiaren kontzeptua zenbaitetan abstraktuegia baita talde sozial jakin batzuek bizi duten errealitateaz jabetzeko. Giza Eskubideen unibertsalitatea azpimarratu eta gauzatzeko kontuan hartu behar da bereziki ahulak diren taldeak diskriminazio nabarmena jasaten dutela eta horregatik hainbat gizakiek babes edo laguntza berezia behar dute, hala nola, indigenak, errefuxiatuak, gutxiengo nazionalak, haurrak eta baita emakumeak ere (Carrillo, 1999: 119).<sup>1</sup>

Demokraziaren esanahiaren oinarrian berdintasun printzipioa dago, eta honekin batera edozein diskriminazioaren ukapen formal. Printzipio honetatik abiatuz, hiritarren berdintasuna legeetan eta konstituzioetan jasotzen da. Maila formal horretatik aparte, gizartearen errealitatean bereizkeria ugari ematen dira, irizpide ezberdinetan oinarriturikoak: arraza, erlijioa, klase soziala, sexua, e.a. Lan nekeza izango litzateke egungo gizartean ikus ditzakegun diskriminazio guztien aipamen osoa egin eta bakoitzaren ezaugarriak aztertzea baina Gizarte-Zientzietako arlo ezberdinetan (Historia, Antropologia, Soziologia edo Politika-Zientzia) egindako ikerketek erakusten dutenez, sexuan oinarritzen den bereizkeria gizarte eta une historiko ezberdinetan zehar eman da; sexis-

---

<sup>1</sup> Deklarazio originala «Gizonen Eskubideen Deklarazio Unibertsala» izan zen baina 1952an Batzar Orokorrak Gizonen Eskubideen orde z Giza Eskubideak ezartzea erabaki zuen, bai Deklarazio honetan bai honi buruzko dokumentu guztietan (Carrillo, 1999: 18).

moa diskriminazio mota unibertsalena dela, alegia. Sexuen arteko desberdintasunak betidanik emakumeen egoera gizonetzkoena baino okerrago izatea ekarri du. Emakumeak antzinean eskubiderik gabeko gizakiak ziren, hiritar maila lortu ez zutenak; gaur egun, aldiz, eskubide horiek onartuta egon arren arazo zehatzak jasaten dituzte. Egoera hau garatutako Estatueta eta garapen-bidean daudenetan ere ematen da, toki bakoitzaren berezitasunekin: emakumeen langabezi tasak handiagoak izan ezik lan baldintza kaxkarragoak ere badituzte, pobrezia latzena jasaten duten gehienak emakumezkoak dira, senitarteko biolentziak emakume kopuru itzela erahiltzen du, e.a. xx. mendean emandako aurrerapausuak eta eskuratutako lorpenak ugariak eta sakonak izan arren, egungo gizartean oraindik ere emakumeen diskriminazioak bizirik dirau.

## 1.2. Nazioarteko ekarpenak: Nazio Batuen ariketa

Honen aurrean instituzio maila ezberdinek sexuen arteko berdintasunaren aldeko ekimen ugari aurrera atera dituzte. 1945ko Nazio Batuen Kartaren hitzaurreak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aipamena egiten du. Karta beraren lehenengo artikulua erakundearen helburuak finkatzerakoan Giza Eskubide eta Funtsezko Askatasunen alde diskriminaziorik gabe arituko dela adierazten du, arraza, sexua, hizkuntza edo erlijioan oinarriturikoak aipatuz.

Ordutik hona, Nazio Batuek mundu osoko emakumeen bizi baldintzak eta sexuen arteko berdintasunaren ardura eramateko ariketa handia eta administrazio-egitura zabal bat eratu dute. Horien artean garrantzitsuenak aipatuko ditugu segidan: lehenik, 1946an Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren barnean Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea (CSW, ingelesezko siglen arabera)<sup>2</sup> sortu zen, emakumeen eskubideei buruzko txostenak eta gomendioak egiteko helburuarekin. Bestalde, 1967an *Emakumearen Diskriminazioaren Aurkako Deklarazioa* egin zen eta honen ildotik 1979an *Emakume Kontrakoen Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa* onartu egin zen. Urte berean dokumentu honen ezarpena aztertuko zuen erakunde berezia eratu zen ere. Garapen soziala eta gai humanitarioen alorrean Emakumeen Aurrerapenerako Divisiona dago (DAW),<sup>3</sup> aurreko erakundeen laguntzaile modura aritzen dena.

<sup>2</sup> CSW: Commission of the Status of Women.

<sup>3</sup> DAW: Division for Advancement of Women.

1976tik Emakumeen Sustapenerako Ikerketa eta Trebakuntzarako Nazioarteko Institutuak (INSTRAW)<sup>4</sup> emakumeen egoerari buruzko ikerketak eta ekimenak burutzen ditu, batez ere garapen prozesuan betetzen duten papera aztertzeko. Gai honi lotuta Nazioarteko Garapen Programaren barruan UNIFEM erakundea ari da, Emakumeen Aldeko Garapen Fondoa. Erakunde honek garapen prozesuan emakumeen integrazioa bultzatzen duten programak burutzen ditu. Azken urteetan gai honen inguruan sakoneko gogoetak eta gomendioak egin dira, geroz eta argiago baitago emakumeen paper soziala eta ekonomikoa kontuan hartu behar dela edozein garapen proiektua aurrera atera nahi bada.

Nazio Batuen ekimenen artean ezinbesteko da Mundu-mailako Konferentziak aipatzea. Asanblada Orokorrak 1975a Emakumeen Nazioarteko Urtea aldarrikatu zuen. Urte horretan Mexikon I Konferentzia egin zen. Konferentzia honen esanahi nagusia emakumeen arazoei nazioarte mailako garrantzia ematean datza. Bilera honen ondorioz *Mundu-mailako Ekintza Plana* egin zen, Emakumeen Nazioarteko Urtean planteaturiko helburuak biltzen zituena. Bestetik, *Emakumeen Berdintasuna eta Garapena eta Bakean egiten duten Ekarpenaren Deklarazioa* egin zen.

Emakumeen Nazioarteko Urtea amaitzerakoan Emakumeen Hamarkada egin zen lema honekin: Berdintasuna, Garapena eta Bakea, 1976-1985. Urte hauetarako helburuak esparru desberdinetan planteatu ziren: nazioarteko lankidetzaz, partehartze politikoa, hezkuntza, enplegua, osasuna, familia, populazioa, etxebizitza, e.a. Hamarkadaren lorpen nagusia 1979ko Asanblada Orokorrak onartutako *Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa* izan zen (ikus eranskina). 1981ko irailaren 3tik aurrera indarrean dagoen Konbentzio hau emakumeen funtsezko eskubide eta askatasunen nazioarteko bildumatzat jo daiteke eta bereizkeria sexistaren aurkako oinarrizko tresna juridikoa da (Bustelo, 1996: 31). Egun Konbentzioak 165 estatu berrespena lortu du (UNIFEM, 2000).<sup>5</sup>

Dokumentu honen bitartez Konbentzioa onartzen duten Estatu Ki-deek gaitzetsi egiten dituzte emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak eta emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika

---

<sup>4</sup> INSTRAW: International Research and Training Institute for the Advancement of Women.

<sup>5</sup> Espainiak Konbentzioa 1980an izenpetu eta 1983an berretsi zuen, erreserba batekin: dokumentuak ez zuen eraginik izango Koroaren ondorengotzaren araudian, eremu honetan Konstituzioak lehentasuna ematen baitio gizonezkoari.

bat jarraitu eta honetarako behar diren neurri egokiak hartzea erabakitzeko dute.

Edukiari dagokionez, hitzaurrean eskubideen defentsarako orduraino sortutako tresnak ez direla gai izan emakumeen eskubideak bermatzeko adierazten da. Konbentzioak diskriminazioaren definizio zehatza eskeintzen du. Honen arabera emakumearen kontrako diskriminazioak «sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gora-behera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamina edo erabilera gutxitu edo ezeztatzeak helburuz edo emaitzaz egindakoa» (1. art.). Definizio honek funtsezko ondorio bat du: bereizkeria ez da soilik arazo publikoa baizik eta edozein esparruan, alegia, arlo pribatuan, etxean eta familia artean ere ematen dela esan nahi du. Testuan zehar emakumeek familian eta etxean betetzen dituzten eginkizunek beren zeregin sozialengan eragin zuzena dutela azpimarratzen da.

Konbentzioa sinatu duten Estatuak arlo publikoan zein pribatuan eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan egon daitekeen diskriminazioa ezabatzea beharturik daude. Bereizkeria ezabatzeko dauden arau juridiko zein konstituzional diskriminatzaileak aldatu edo deuseztatzeaz gain (2. art.), Konbentzioak Estatuaren ariketa gauzatu duten neurri praktikoak ere eskatzen ditu (3. art.). Berdintasun erreala bultzatzeko aldibaterako neurri berezien aipamena egiten da (4. art.); artikulua honek emakumeentzako abantailak planteatzeko aukera emateaz gain ekintza positiboaren zilegitasuna adierazten du (Bustelo, 1996: 34). Ondorengo artikuluetan esparru zehatzak azaltzen dira, horietan guztietan sexuen arteko diskriminazioaren ezabapena eskatuz: estereotipoen aldaketaren beharra sexu baten gutxiagotasuna eman ez dadin (5. art.); emakumeen salerosketa eta prostituzioaren usiapienaren deusezpena (6. art.); nazionalitateari buruzko eskubideak (9. art.); hezkuntza berdina jasotzeko eskubidea (10. art.); enplegu eskuratu eta baldintza berdinak izateko eskubideak (11. art.); zerbitzu medikuak jasotzeko eskubidea (12. art.); bizitza ekonomiko eta sozialean eskuhartzeko eskubidea (13. art.); berdintasun zibila (15. art.) eta ezkontzari buruzko aipamena (16. art.). Nekazal munduko emakumeek bizi duten arazo bereziak kontuan harturik hauei zuzenduriko eskubideak 14. artikuluan biltzen dira.

Azpimarratzekoa da emakumeen eskubide politikoen aldarrikapena bi artikuluetan jasotzen dela: alde batetik, hauteskunde eta erreferendumetan botua eman eta hautagaia izateko aukera, erabaki politikoei parte hartu, kargu publikoak eduki eta edozein talde politikoen



kide izateko eskubidea (7. art.) eta bestalde, bere gobernu nazioarteko mailan ordezkatzeko eta nazioarteko erakundeetan parte hartzeko eskubidea (8. art.).

Esan bezala, dokumentuak Konbentzioaren jarraipena egingo duen erakunde bat ezarri zuen, 17. artikuluan zehazten den Emakumearen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordea (CEDAW, ingelesezko siglen arabera).<sup>6</sup> Batzorde hau lau urtetarako hautatzen diren hogeita hiru adituez osatzen da, gizarte eta ikuspegi ezberdinen ordezkaritza beteko dutenak. 1981an Konbentzioa indarrean sartu zenetik, Batzorde honek bere txostena Nazio Batuen Batzar Orokorraren aurrean urtero aurkezten du, mundu mailan eta Estatu bakoitzean eman diren aurrerapenak edo atzerapenak baloratuz.

Emakumeen Hamarkadaren erdian, 1980an, Konpenhageko II Munduko Konferentzia egin zen Ekintza Planaren ezarpena nola egin zen aztertzeko eta bide batez, beste *Ekintza Programa* bat proposatzeko hiru ardatz zehatzen inguruan: oraingo honetan osasuna, hezkuntza eta enpleguaren inguruan. Balorazio orokorra egin eta hamarkadari amaiera emateko 1985an III Mundu-Konferentzia Nairobiri egin zen. Bertan bildutako 157 Estaturen ordezkariak dokumentu bat sinatu zuten: *Emakumeen Aurrerapenerako eta Etorkizunera Zuzendutako Nairobiko Estrategiak, 1986-2000*. Dokumentu hau emakumeen egoera hobetzeko atal ezberdinetan biltzen diren neurri zehatzez osatzen da: sexuen arteko berdintasuna, emakumeen autonomia, ordaindugabeko lanaren balorazioa, enpleguaren hobekuntza, osasuna eta famili-plan-gintza, hezkuntza eta bakearen sustapena.

Azkenik, 1995ko irailan Pekingo IV Konferentzia egin zen. Topaketa honen helburu nagusia Nairobiko Estrategiak onartu zirenetik ordurainoko emakumeen bizimoduaren aldaketa aztertzea izan zen. Konferentziaren ondorioz, *Ekintzarako Plataforma* bat egin zen, munduko emakume gehien aurrerapena oztopatzen duten arazo nagusiak zehazten dituenak: botere gunetara iristeko zailtasunak, alfabetizatzea, hezkuntza eta enpleguan dauden desberdintasunak, pobrezia, emakumeen giza eskubideekiko begirunea, osasuna eta erreproduzio-eskubi-deak, biolentzia, teknologiaren erabilpena, e.a.

Nazio Batuek eta bestelako nazioarteko erakundeek burututako ekimenen eragina aztertzerakoan, emakumeen eskubideen babesean lorpenak izan direla esan behar da. Argi dago maila honetan egindako tresna juridiko eta hartutako erabakiak ez direla nahikoa izan baina onartu behar da funtsezko helburu bat lortu dutela: sexuen arteko des-

---

<sup>6</sup> CEDAW: Committee on Elimination of Discrimination Against Women.

berdintasuna arazo globala dela adierazi dute eta instituzioen partehar-  
tzearen beharra azaltzen lagundu dute. Gainera, bereizkeriaren ezagu-  
penerako oso eraginkorrak izan dira, aipatu ditugun instituzioek ikerke-  
ta ugari eskatu eta burutu baitituzte. Hauen bitartez munduko leku  
guztietan emakumeek bizi duten egoera ezagutu, toki bakoitzeko ara-  
zoak aztertu eta irtenbideak zehazteko aukera izango dugu.

## 2. Emakumeak eta instituzioak

### 2.1. *Emakumeen Eskubide Politikoak*

xx. mendera arte emakumeak botere politikoaren ariketatik erabat baztertuak egon dira. Aro Garaikidean eskubide politikoaren eztabaida eman zenean ere, ikusi dugun bezala, Ilustrazioak eta Liberalismoaren pentsakerak aldarrikatzen zituzten berdintasuna eta askatasuna ez zitzaizkien emakumeei onartu. Eskubideen unibertsalitatea ez zen errealitatean gauzatu eta horregatik emakumeek beren aldeko mugimendua antolatu zuten. Mugimendu horren haserako errebindikazio nagusia boturako eskubidea izan zen. Sufragismoak bere aurkako erantzun instituzionala eta soziala gogorra jasan behar izan zuen. Erakundeek argi baina argiago ikusi zuten Sufragioaren ondorioak oso sakonak izan zitezkeela, batez ere gizartearen oinarria zen familiaren aldaketa bultzatzen baitzuten, orduraino gizonaren erabateko nagusitasunean egituratzen zen instituzioa. Izan ere, garai hartako sufragista askok ez zuten pentsatzen eskatzen zutena euren zeregin sozial eta familiarra hainbeste eraldatu zezakeenik.

Sufragismoaren eraginez mendebaleko Estatuak pixkanaka emakumeen bozkatzeko eskubidea onartuko zuten. Lehenengoa Zelanda Berria izan zen 1893an, ondoren Australia 1901ean eta Europako Estatu gehienak hurrengo urteetan zehar aldatu zituzten beren hauteskunde-araudiak (Unión Interparlamentaria, 1992a: 17-20). Kasu honetan Finlandia aitzindaria izan zen 1906an eta Lehenengo Mundu-Gerraren ostean sufragio unibertsalaren hedapen orokorra ikus ahal izan genuen (ikus 1. taula).

**1. taula**

Emakumeen sufragioaren onarpena Europako Estatuetan

Estatua	Urtea
Alemania	1918
Austria	1918
Belgika	1948
Danimarka	1915
Espainia	1931
Finlandia	1906
Frantzia	1944
Grezia	1952
Irlanda	1918
Italia	1945
Luxenburgo	1919
Herbehereak	1919
Portugal	1976
Erresuma Batua	1918
Suedia	1921

*Iturria:* Unión Interparlamentaria (1992a): *Las mujeres y el poder político*. Madrid: Congreso de Diputados, 17-20. or. Taulan jasotzen diren urteetan emakumeek sufragioa gizonen baldintza berdinekin lortu zuten, zenbait kasuetan botatzeko eskubide mugatua aurretik onartua baitzegoen.

Botatzeko eskubidea lortu ondoren emakumeen mugimenduak behar bada nabarmena jasan zuen. Sufragismoak helburu zehatz eta garbi bat aurkeztu zuen eta zehaztasun hori bere arrakastaren arrazoia ezezik, bere porrota ere eragin zuen: helburua lortu ondoren, ez zen gai izan bestelako estrategia finkatu eta ariketa birmoldatzeko. 1960 hamarkadara arte emakumeen aldeko mugimendu antolatua deseginik egon zen. Garai hartan Feminismoaren berpizkundea eman zen, bestelako mugimendu iraultzaile eta ihardukitzzaileekin batera.

1960 eta 1970 hamarkadetako Mugimendu Feminista berriak botere politikoarekiko jarrera kontrajarriak agertu zituen. Iritziak sinplifikatuz esan daiteke Mugimenduan zeuden korronteez, interpretazio-ildo desberdinetatik abiatuz, boterearen balorazio baikorra edo ezkorra egin zutela. Alde batetik, aurkako ikuspegia zegoen eta bestalde, integrazioaren aldeko jarrera (De Miguel eta Cobo, 1997: 213). Lehenengo ikuspegiaren arabera, boterearen balorazioa erabat ezkorra da, bereizkeria eta injustizia sortzen duen zapalketa tresna hutsatzat jotzen baita. Instituzio politikoak gizonen nagusitasunaren egituraren oinarri

dira, patriarkatuaren ardatzak, eta horregatik ez dituzte inoiz emakumeen interesak eta eskakizunak erantzungo. Emakumeek ez dute instituzioekin inongo zerikusirik eduki behar, handik ez baitute ezer onik lortuko, euren borrokaren neutralizazioa eta kemenaren indargabetzea baizik.

Bigarren ikuspegiak, ordea, emakumeek botere guneetan sartu behar direla dio eta behar hau justifikatzeko arrazoi desberdinak erabili ditu.

- a) Justizia demokratikoa: argudio honen abiapuntua demokraziaoren esanahi beraren muinean datza, alde batetik demokraziak herriaren partehartze politikoa eskatzen baitu eta bestalde, demokraziaren printzipio nagusia berdintasuna baita. Honen arabera, emakumeen presentzia politikoa derrigorrezko osagaia da justizia demokratikoa gauzatu ahal izateko (Bustelo, 1994: 23).
- b) Giza baliabideen ikuspegiak bestelako argudioa erabiltzen du: instituzio politikoetan emakume gutxi izateak giza baliabideen galera dakar (Carroll, 1994: 14). Gizartearen erdia instituzioetako karguak betetzeko ematen den lehia politikotik kanpo gelditzen da eta honela emakumeen ekarpen potentzialak alferrik galtzen dira. Emakumeek politikagintzan egin dezaketen lan baliotsuak euren partehartze politikoaren beharra justifikatzen du.
- c) Ordezkaritza teorien arabera talde batetako kideak talde sozial horren interesak defendatzeko ordezkarri aproposenak dira. Gizon eta emakumeen bizimodua desberdina den neurrian, gizonezkoek ezin dituzte emakumeen eskakizunak ulertu ezta hauen interesen alde lan egin ere. Hortaz, gizonezkoek ezin dituzte emakumeak politikoki behar den bezala ordezkatu eta ildo horretatik ia emakumerik gabeko instituzioak ezin daitezke emakumeen ordezkarri izan (Phillips, 1999: 254). Ordezkaritza betetzeko derrigorrezkoa da emakumeen partehartze instituzionala.
- d) Begirune sozialaren argudioak esfera politikoan emakumerik ez egoteak eragin negatiboa duela gizarteko emakume guztiei buruz dagoen pertzepzioan esaten du (Moller Okin, 1997: 178). Emakumeon irudiak galdu egiten du botere politikoko lekuetan presentzia urria bada. Emakume gehiago erakunde politikoetan sartuko balira, emakumei buruzko balorazio orokorra aldatuko litzateke. Politikak edozein gizarte arlok baino proiektio handiagoa du, gizartearen arazoak, nahiak eta asmoak isladatzen duen eszenatoki nagusia baita. Horregatik, emakumeen partehartze politikoa emakumeenganako gizartearen begirunea bultzatzen da eta honekin batera, pertsona gisa duten izaera ukatzen diren aldiak eta beren aurkako irainak, erasoak eta bortxakeria ekiditzeko baldintzak erraztu daitezke.

Duela hogeita hamar urte hasitako gatazka eta iritzi kontrajarrien ondoren egungo Mugimendu Feministaren gehiengoa boterean eskuharztearen alde dago. Honez gero instituzioaren alde ala kontrako jarreraren arteko gatazka gaiditurik dago, eta gaur egun ikuspegi feministen artean egon daitekeen desberdintasuna aipatutako argudioei ematen dieten garrantzian datza. Ia erabateko adostasuna ematen da funtsezko ideia honen inguruan: emakumeak instituzio politikoetan sartu behar dira.

## 2.2. Emakumeen presentzia instituzionala ikuspegi konparatuan

Hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea xx mendean zehar emakumeek lortu duten garaipen nagusienetarikoa izan da. Mendearen bukaeran ia mundu osoko emakumeek hautesle eta ordezkari politiko gisa hautatuak izateko eskubide legala dute.<sup>7</sup> Azken hamarkadetan emakumeek Estatu desberdinetako instituzio politikoetan sartzeko aukera izan duten arren, lortu duten presentzia maila oraindik oso murrizta da, segidan ikus ahal izango dugun moduan.

Mundu osoko parlamentuak kontuan hartuz gero, gaur egun emakumeak munduan dauden parlamentari guztien %13.1 baino ez dira (ikus 2. taula). Kontinente bakoitzeko batezbestekoei dagokionez,

### 2. taula

Emakumeen portzentaiak Parlamentuetan: Kontinenteen batezbestekoak

Aldea	Emakumeen % Beha Ganbara	Emakumeen % Goi Ganbara	Emakumeen % Guztira
Europa	15.4	9.4	14.2
Amerika	15.4	14.8	15.3
Asia	15.0	11.7	14.6
Pazifikoa	12.2	25.4	14.1
Afrika subsahararra	11.1	13.3	11.3
Estatu Arabiarrak	3.6	2.5	3.4
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.5</b>	<b>10.7</b>	<b>13.1</b>

*Iturria:* Inter-Parliamentary Union (2000) [<http://www.ipu.org/wmn-e/world.htm>].

<sup>7</sup> Hala ere, egun Estatu batzuek ez dituzte emakumeen eskubide politikoak errespetatzen, zenbait erregimen islamikoen kasuetan hain zuzen (Unión Interparlamentaria, 1992a: 13).

portzentaiarik altuena Amerikan ematen da, %15.3 izanik, eta bajue-  
na, aldiz, Estatu Arabiarren %3.4 da. Bestalde, Pazifikoa eta Afrikako  
kasuak izan ezik, goi ganbaretako emakumeen portzentaia behe gan-  
baretakoa baino txikiagoa da.

Ondorengo taulak Europako Batasunaren kideak diren Estatu-  
en datuak jasotzen ditu. Zona honetan emakumeak parlamentari guztien  
%18.4 dira eta hemen ere bi ganbaren arteko aldea handia da, behe  
ganbaretako batezbesteko portzentaia %21.8 eta goi ganbaretakoa  
%9.8 baita (ikus 3. taula). Estatu-  
en portzentaiak oso desberdinak dira,  
Suediako %42.7tik hasi eta Greziako %6.3ra bitartean kokatzen baiti-  
ra. Zerrendaren lehen tokietan Europa Iparraldeko Estatuak daude,  
Suedia, Danimarka, Finlandia eta Herbehereak, %35 baino gehiagoko  
portzentaiekin. Beste muturrean Frantzia eta Grezia daude, %10era  
iristen ez diren ehunekoekin. Izan ere, portzentaia txiki hauek direla  
eta, Frantziako Parlamentuak *Parekotasun Politikoaren* legea onartu

### 3. taula

Emakumeen portzentaiak Europako Parlamentuetan

Estatua	Emakumeen % Behe Ganbara	Emakumeen % Goi Ganbara	Emakumeen % Guztira
Suedia	42.7	—	42.7
Danimarka	37.4	—	37.4
Finlandia	37.0	—	37.0
Herbehereak	36.0	26.7	32.8
Alemania	30.9	59.8	33.6
Austria	26.8	20.3	25.1
Belgika	23.3	28.2	24.9
Spainia	21.4	13.2	18.0
Portugal	18.7	—	18.7
Erresuma Batua	18.4	0.6	9.4
Luxenburgo	16.7	—	16.7
Irlanda	12.0	18.3	13.7
Italia	11.1	8.0	10.0
Frantzia	10.9	5.9	9.1
Grezia	6.3	—	6.3
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.8</b>	<b>9.8</b>	<b>18.4</b>

*Izturria:* Inter-Parliamentary Union (2000) [<http://www.ipu.org/wmn-e/classif.htm>].

berri du, emakumeen eta gizonen presentzia politiko orekatua bultzatzeko helburuarekin.<sup>8</sup>

Espainiako kasuan sistema demokratikoaren ezarpenatik gaurdaino emakume parlamentarien kopurua asko handitu da, 1977ko hauteskundeetako %6.3tik egungo %21.4ra iritsi baita.<sup>9</sup> Emakumeen presentzia parlamentarioaren igoera ez da pixkanakakoa izan, 1989ko hauteskundeen ondorioz bi ganbaretako portzentaia bikoiztu baitzen. Orduan emakumeak Kongresuan aurreko %6 gainditu eta %14.6 izatera iritsi ziren.

#### 4. taula

Emakumeen portzentaia bilakaera Espainiako Kongresuan (1977-1996)

	1977	1979	1982	1986	1989	1993	1996
GUZTIRA	350	350	350	350	350	350	350
Emakumeak	22	21	22	23	51	55	85
Emakume %	6.3	6	6.3	6.6	14.6	15.7	21.4

*Iturria:* Instituto de la Mujer (1994): *Las españolas en el umbral del siglo XXI*. Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales, 125. or. eta Kongresuko Prentsa Gabinetearen informazioa. Hautetsiak dira, ondorengo aldaketak ez baitira kontuan hartzen.

Bikoizketaren arrazoia PSOEk 1988an onartutako kuotak izan ziren, honen arabera hauteskunde zerrendatan emakumeak gutxienez %25 izan behar baitziren.<sup>10</sup> Hauteskunde hauetan alderdi honek gehiengo absolutua lortu zuenez, kuotaren eragina oso nabarmena izan zen. Senatuan ere antzeko prozesua eman zen, 1989an portzentaia aurreko %5.6tik %10.8 izatera iritsiz (ikus 5. taula).

<sup>8</sup> 2000ko martxoan onartutako legearen izena honako hau da: *Loi tendant à favoriser l'égal accès des femmes et des hommes aux mandats électoraux et fonctions électives*. Legea Frantziako alderdi politiko parlamentario guztien adostasunarekin aho batez onartua izan da, UDFko diputatu bat izan ezik.

<sup>9</sup> Hau idazten dudanean, 2000ko martxoaren hauteskundeak jadanik egin dira baina ganbara berriak oraindik osatu ez direnez datuak ez dira taulan jaso.

<sup>10</sup> Gerora kuota %40ra igo zuten.




**5. taula**

Emakumeen portzentaiaren bilakaera Espainiako Senatuan  
(1977-1996)

	1977	1979	1982	1986	1989	1993	1996
GUZTIRA	248	208	253	252	251	256	256
Emakumeak	6	6	11	14	27	32	35
Emakume %	2.4	2.9	4.3	5.6	10.8	12.5	13.7

*Iturria:* Instituto de la Mujer (1994): *Las españolas en el umbral del siglo XXI*. Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales, 125. or. eta Senatuko Prentsa eta Informazio Sailaren informazioa. Hautetsiak dira, ondorengo aldatetak ez baitira kontuan hartzen.

Bi ganbaren portzentaien bilakaera 1. grafikoa adierazten da. Kontuan hartzen diren zazpi hauteskunderen emaitzen arabera, Senatua emakumeen presentzia murriztagoa izan du beti. Emakumeen portzentaia handitu den arren oraindik ez da laurden batetara iristen.



**1. grafikoa**

Emakumeen portzentaiaren bilakaera Espainiako Kongresuan eta Senatuan  
(1977-1996)

Espainiako Estatuko Autonomia Erkidegoetako parlamentuetan emakumeen kopurua geroz eta handiagoa izan da. Erkidego guztietan

ko legebiltzarrak kontuan hartzen baditugu, 1986tik 1995ra portzentaia hirukoiztu egin zen, %6.4tik %19.6 izatera iritsi baitzen (ikus 6. taula). Kasu guztietan, Kantabria eta Asturias salbu, hauteskunde deialdi bakoitzean emakumeen portzentaia handitu egin da.

### 6. taula

Emakumeen portzentaiaaren bilakaera Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretan (1986-1995)<sup>11</sup>

Autonomia Erkidegoa	% 1986	% 1991	% 1995
Andaluzia	4.5	12.8	28.4
Aragoi	6.0	7.5	11.9
Asturias	8.8	20.0	15.6
Balearrak	5.5	16.9	28.8
Kanariak	1.6	6.7	13.3
Kantabria	8.5	7.7	15.3
Gaztela eta Leon	3.5	9.5	19.0
Gaztela-Mantxa	2.2	19.1	23.4
Katalunia	8.8	11.1	15.6
Extremadura	4.6	15.4	15.4
Galizia	1.4	13.3	13.3
Madril	12.7	23.8	28.2
Murtzia	4.6	11.1	11.1
Nafarroa	2.0	14.0	18.0
Errioxa	11.4	21.2	21.2
Valentzia	6.7	13.5	24.7
EAE	12.0	17.3	18.7
<b>% GUZTIRA</b>	<b>6.4</b>	<b>14.0</b>	<b>19.6</b>

*Iturria:* Instituto de la Mujer (1992): *La mujer en Cifras*, 60. or. eta Instituto de la Mujer (1997): *Las mujeres en cifras*. 101. or.

Zerrenda honetan EAEak 1991an bosgarren tokia betetzen zuen, Madril, Errioxa, Asturias eta Gaztela-Mantxaren atzean. 1995ean, aldiz, zazpigarrena zegoen, Balearrak, Andaluzia, Madril, Valentzia, Gaztela-Mantxa, Errioxa eta Gaztela eta Leon-en ondoren.

<sup>11</sup> Taulako portzentaiek txostenak egin zirenean zegoen egoera adierazten dute. Horregatik EAEko portzentaia ez dator bat ondoren Eusko Legebiltzarrak emandako datuekin, une desberdinetan jasota baitaude.

EAEko sistema politikoa ezarri zenetik emakumeak maila instituzional ezberdinetan sartu dira. 1980ko lehen hauteskundeen ondorioz Eusko Legebiltzarrean lau emakume zeuden, %6 osatuz, eta 1998ko azken hauteskundeen emaitzen arabera hogeita bi dira, %29.3 (ikus 7. taula).

### 7. taula

Emakumeen portzentaiaren bilakaera Eusko Legebiltzarrean  
(1980-1998)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998
Guztira	60	75	75	75	75	75
Emakumeak	4	8	10	15	18	22
Emakume %	6.7	10.7	13.3	20	24	29.3

*Iturria:* Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzua.

Parlamentu desberdinei buruzko datu hauek guztiek erakusten dutenez, emakumeen kopurua handitu egin da eta prozesua instituzio maila guztietan eman da. Azken urteotako igoera orokorra izan den arren, emakumeen presentzia instituzionala oraindik nahikoa mugatua da: zenbait Estatu Eskandinabiarretan %40 izatera heldu da, baina orokorrean askoz ere txikiagoa da, beste kasuetako instituzio gehienengatik portzentaia horretatik oso urrun baitaude.



### 3. Emakumeak alderdi politikoetan

Alderdi politikoak elementu desberdinez osatutako errealitate konplexuak dira eta zeregin ugari dituzte. Zeregin horien artean identifikazio eta adierazpen ideologikoak eta zenbait interes sozioekonomiko mugitu eta eranstea daude. Alderdiak gizartearen ordezkariak eta sistema politikoa mugitzeko bide nagusiak dira, oinarrizko bi mailatan tresna nagusiak baitira: alde batetik, eliteak bildu eta aukeratzeko, eta bestetik, hiritarren partaidetza politikorako, eskubide politikoak burutzeko bideak dira. Horregatik, emakumeen eskubide politikoak aintzat hartzerakoan alderdi politikoak nahitaez kontuan hartu behar dira.

Alderdien azterketa zenbait ikuspegitatik egin daiteke, eman nahi zaion garrantziaren arabera. Hala ere, alderdietako adituek ez dituzte antolakuntzaren inguruko gaiak askotan aztertu. Ostrogorski (1902), Weber (1905) eta Michels (1911) autoreek mendearen hasieran egindako lan aitzindarietatik hasita, garrantzi handiko azterketa teoriko klasikoak ezagutzen ditugu. Lan horiek, «tradizio ohoragarria» izenaren azpian bildu daitezke (Wolinetz, 1988: 6). Hala ere, orduz geroztik oso aurrerapauso txikiak eman dira, alderdien antolakuntza gai zehatz gisa aztertu denean. Duverger 1951ean edo Panebianco 1982an salbuespen izanik, gai hau politologiaren bigarren mailako eremu izan da (Vilas, 1997: 59). Azterketen arreta neurri handi batean beste hainbat alderi eskaini zaie: hautesle-mota desberdinak, gobernatzeko modua, edo alderdiko sistemetan ematen diren norgehiagoka eta harremanak (Katz eta Mair, 1994: 2).

Orokorrean, alderdien egituraren eta hauen barne-antolakuntzaren inguruan egindako azterketetan ondoko gai hauek hartu dira kontuan: lehendabizi, afiliatuen kopurua eta ezaugarriak. Esan behar da horren

inguruko datu fidagarriak eskuratzeko dauden zailtasunak direla eta, sarritan alderdi bateko boto-emaile kopuruari, afiliazioari baino garrantzi handiagoa eman zaiola; kontuan hartu beharreko bigarren puntua, zuzendaritzaren osaketa da; eta azkenik, alderdietako ordezkariak betetzen dituzten instituzioetako karguak. Ikuspegi honetatik, adibidez, Weber-ek mende hasierako Europako alderdien antolakuntzan lau maila bereizi zituen: alderdia gobernatzeko lana betetzen duen zuzendaritza; egitura funtzionarazten duten kide aktiboak; masa ez aktiboak, hauteskundeetan parte hartuzera mugatzen direnak; eta gorde samar dauden mezenasak edo babesleak (Weber, 1964: 229). Bide berean, zenbait urte geroago Duverger-ek, antolakuntza egituraren hiru maila aipatu zituen: markoa edo egitura, kideak eta zuzendaritza (Duverger, 1981). Oraindik orain, Katz eta Mair-ek, alderdi baten barne-egituraren hiru maila bereizi dituzte: erakunde publikoetako karguak, afiliatuak eta alderdiko zuzendaritza (Katz eta Mair, 1994: 4). Sailkapen honetan oinarrituta, koadernoaren azken zati hau hiru gai horien erreferentzia kuantitatiboa da.

### 3.1. *Europako alderdien hainbat datu*

Alderdi politikoetan emakumeen afiliatu kopurua gizonetzkoena baino txikiagoa da orokorrean. Halaber, alderdietako zuzendaritza karguetan, militantzian baino emakume gutxiago egon ohi dira; horrek esan nahi du alderdiaren hierarkian gora egiten den neurrian emakume-kopurua murriztu egiten dela eta hori emakumeak erakundean duen partaidetzarekin lotutako joeraren adierazpena da. Horren arabera, hierarkiako goiko mailetan emakume gutxiago daude. Joera horri honela deitu zaio: «handituz doan diferentziaren legea» (Putnam, 1976: 33). Alderdien militantzian eta zuzendaritza organoetan dauden emakumeen ehunekoaren arteko diferentziak analizatzeko egindako azterketen emaitzek erakutsi dute bi arlo horietan aldea beti eman ohi dela, zenbait kasutan diferentziak oso handiak direlarik.

Honen inguruan egindako zenbait azterketen ondorio nagusietako bat ondoko hau da: alderdien ideologiak eragin handia duela sexuen araberrako afiliazioan eta barne egituraren karguak emakumeen proportzioan. Ia kasu guztietan gizonetzkoak emakumezkoak baino gehiago izanik, ideologiaren arabera ezkerreko alderdietan eskuinekoetan baino emakume afiliatu gutxiago izan dira historian zehar (Bashevkin, 1993: 151). Ezker-alderdietan langileek eta sindikatuek izan duten garrantzia da arrazoi nagusia, bertan emakumeek ez baitute partaide-

tza handirik izan (Lovenduski eta Norris, 1993: 40). Aitzitik emakumeak eskuineko alderdietako zuzendaritzako karguetan ezker-alderdietakoe-tan baino gutxiago izan dira. Eskuineko alderdietan emakume afiliatuen eta zuzendaritzan daudenen arteko diferentzia handiagoa da (Bashevkin, 1993: 151), generalizazio hori askotan mugatu behar den arren (Norris, 1987: 126). Ezker-alderdietako zuzendaritzetan (afilia-tuen portzentaia txikiagoa bada ere) emakume gehiago egotearen arrazoen artean ezker-alderdiak mugimendu feministen postulatueta-tik hurbilago daudela azpimarratuko genuke eta neurri handi batean ideia honekin berarekin lotuta, kuoten (Uriarte, 1995: 131) eta beste motako sustapen-neurrien (Lovenduski, 1993: 13) aplikazio orokorra egongo lirateke. Joera honen arabera, Espainiaren kasuari buruzko da-tuek erakutsi dute azken urteetan ia alderdi guztietako parlamentarien artean emakumeen kopurua handitu bada ere, kopuru hori gehiago eta azkarrago handitu dela ezkerreko alderdietan (Barbadillo, Juste eta Ramirez, 1990: 105).

Emakumeak alderdi politikoetan sartzea 1960 hamarkadaz geroztik politikaren munduan emandako aldaketa garrantzitsuenetariko bat da (Jennings, 1990: 221). Hala ere, gaur egun alderdi gehienetan emaku-mezkoek gizonetzkoek baino gutxiago izaten jarraitzen dute, afiliazio-mailan nahiz erantzukizuneko barne-karguetan. 8. taulan hainbat iturri dokumentaletako informazioa jaso da. Bertan, Europako hamalau herrialdetan jarduten duten 79 alderdietako afiliazio mailan eta zuzen-daritzako barne-organoetan jarduten duten emakumeen portzentaia adieraziko da.

## 8. taula

Europako alderdi nagusien emakumeen portzentaia-  
k zuzendaritza eta afiliazioetan

Estatua	Alderdiak	% Afil.	% Zuze.
ALEMANIA	CDUC Kristau Demokrazia	23	21
	SU Sozial Kristauak	17	17
	FDF Alderdi Liberala	30	18
	SPD Sozial Demokrazioa	27	36
	G Berdeak	33	54
AUSTRIA	FPÖ Askatasunaren Alderdia	—	20
	ÖVP Alderdi Popularra	—	28,6
	SPÖ Alderdi Sozialista	33,6	27,7
	GA Berdeak	—	42.8

**8. taula**

(Jarraipena)

Estatua		Alderdiak	% Afil.	% Zuze.
BELGIKA	CVP	Kristau Demokrazia Flandes.	43	10
	VU	Batasun Popularra Flandes.	33	10,5
	PVV	Alderdi Liberala Flandestarra	30	23,8
	PSB	Alderdi Sozialista Frankofon.	20-50	14,8
	BSP	Alderdi Sozialista Flandes.	20-50	10,4
	ECO	Ekologistak	—	38,9
DANIMARKA	FRP	Aurrerapen Alderdia	—	16,7
	KRF	Kristau Demokrazia	—	20
	KF	Alderdi Kontserbadorea	—	14,8
	RV	Alderdi Sozial-Liberala	—	25,7
	CD	Zentro-Demokrata alderdia	—	12,1
	V	Alderdi Liberala	—	20
	SD	Alderdi Sozialdemokrata	—	33,3
	SF	Alderdi Sozialista	—	38,5
ERRESUMA BATUA	CON	Alderdi Kontserbadorea	48	20
	SLD	Alderdi Liberal Demokrata	40	17
	LAB	Alderdi Laborista	40	17
	Plaid	Cymru Galeseko nazionalistak	50	32
	SNP	Eskoziako nazionalistak	35	—
	G	Berdeak	47	29,4
ESPAINIA	PCE/IU	Alderdi Komunista/IU	17,6	34,4
	PSOE	Alderdi Sozialista	21,1	30,5
	CDS	Zentro Demokrata-Soziala	19,6	12
	PP	Alderdi Popularra	30	18,9
FINLANDIA	KOK	Koalizio Kontserbadorea	—	8,7
	SKDL	Liga Demokrata Kristaua	—	50
	KESK	Zentroko Alderdia	—	16,7
	SFP	Alderdi Popularra	—	27,6
	SDP	Alderdi Sozial Demokrata	—	23,1
FRANTZIA	RPR	Ald. Gaullista Kontserbadorea	43	7,1
	PSF	Alderdi Sozialista	28	18
HERBEHEREAK	VVD	Alderdi Popular Liberala	34	29,6
	CDA	Demokrazia Kristaua	24	25,5
	D' 66	Demokratak	40	27,3
	PVDA	Alderdi Laborista	40	40
	CPN	Alderdi Komunista	—	38,9
	PSP	Alderdi Sozialista	—	35,7
	PPR	Alderdi Erradikala	—	37,5
	GL	Berdeak	40	50



**8. taula**

(Jarraipena)

Estatua		Alderdiak	% Afil.	% Zuze.
IRLANDA	FG	Fine Gael	—	26,3
	FF	Fianna Fáil	—	22,2
	LAB	Alderdi Laborista	38	15,4
	PD	Demokrata Aurrerakoiak	50	28
	WP	Langileen Alderdia	40	16,3
	G	Berdeak	—	37,5
ITALIA	MSI	Mugimendu Sozial italiarra	—	5
	DC	Kristau Demokrazia	39,5	2,5
	PSI	Alderdi Sozialista	—	19,2
	PDS	Ezker Demokrazia	—	32,2
	DP	Demokrazia Proletarioa	—	30
	PR	Alderdi Erradikala	—	14,3
	VER	Berdeak	—	27,3
LUXENBURGO	CSV	Alderdi Sozial Kristaua	3	—
	DP	Alderdi Demokrata	30	—
	LSAP	Alderdi Sozialista	33	—
	KPL	Alderdi Komunista	34,5	—
	GAP	Berdeak	56	—
NORVEGIA	FRP	Aurrerabidearen Alderdia	—	20
	H	Alderdi Kontserbadorea	—	37,5
	KRF	Alderdi Kristau Popularra	—	36,4
	SP	Zentroko Alderdia	—	45,4
	V	Alderdi Liberala	—	50
	DNA	Alderdi Laborista	—	46,4
	SV	Alderdi Sozialista	—	46,6
SUEDIA	M	Alderdi Kontserbadorea	43	42,1
	FP	Alderdi Popular Liberala	51	53,3
	C	Zentroko Alderdia	45	39,4
	S	Alderdi Sozial Demokrata	40	29,8
	VPK	Alderdi Komunista	41,1	50
	MP	Berdeak	51	50

*Iturriak:* Unión Interparlamentaria (1992a: 75-79, 87); Katz eta Mair (1992); Kolinsky, (1993: 127-134); Uriarte (1995: 130); Appleton eta Mazur (1993: 102); Guadagnini (1993: 177); Leijenaar (1993: 212); Norris eta Lovenduski (1993: 41-44). Datuak 1987 eta 1995 bi-tartekoak dira.

Afiliatutako emakume proportzioari buruzko datuen arabera, oso kasu gutxitan da portzentaia %50 baino handiagoa: aurrean dugun taularen arabera, Suediako Alderdi Liberalean, eta Suediako eta Luxenburgoko Berdeetan. Emakumezkoen afiliazioaren portzentaia Suediako beste alderdietan ere oso handia da: guztiek %40 gainditzen dute. Bestetik, Erresuma Batuko afiliazioetan emakumezkoak asko dira: Eskoziako Alderdi Nazionalistan %35, Plaid Cymru edo Galesko Alderdi Nazionalistan %50, Alderdi Laboristan eta Liberalean %40, eta Kontserbadoreetan %48. Ondoko alderdi hauetan ere emakume afiliatuen kopurua handia da: Flandesko Kristau Demokrazia Belgikan, Frantziako RPR gaullista, Irlandako Langileen Alderdia eta Demokrata Aurrerakoen Alderdia, eta Herbeheretako Demokratak, Laboristak eta Berdeak. Aitzitik, emakume afiliatu gutxien duten alderdien artean, Luxenburgoko Alderdi Sozial Kristaua dago (%3). Espainiako alderdi politikoak Estatu askotako batezbestekoen azpitik daude: 1991ko datuen arabera, PPko afiliatuen artean %30 emakumeak ziren, eta PSOEn eta CDSn %20 inguru. IU alderdiak 1989an, emakume afiliatu-kopuru txikiena zuen (%17,6).

Taulan jasotako datuak ikusita eta alderdi bakoitzaren ideologia kontuan hartuta ez da diferentzia nabarmenik antzematen sexuen arabera afiliazioen konposaketan. Hori kontuan hartuta, gaur egun jadanik ez da aurretik egindako ikerketek erakutsitako joera orokorra betetzen. Joera horren arabera, eskuineko alderdietan ezkerrekoetan baino emakume afiliatu gehiago zeuden. Hortaz, alderdi batean emakume afiliatuen proportzioa azaltzeko ideologiaren erabilgarritasuna berriz aztertu beharko litzateke.

Bestalde, alderdietako zuzendaritza-organoetan emakumeen kopurua kasu bakoitzean asko aldatu da. 8. taulako alderdiak kontuan hartuta, datu txikiak desagertutako Kristau Demokrazia italiarrak (%2,5 1990ean), Italiako Mugimendu Sozialak (%5), eta Frantziako RPR gaullistak (%7,1 1985ean) zituzten. Hiru alderdi horiek, eskuinekoak dira. Aitzitik, Alemaniako Berdeen zuzendaritzan %54,5 emakumeak dira, taulako kopururik handiena. Era honetako alderdietako agintarien artean emakumeen proportzio handia da, Austriako, Herbehereetako eta Suediako Berdeen kasuan ikusi bezala. Emakumeen kopuru handia duten beste hainbat alderdi Finlandiako Kristau Demokrazia, Herbeheretako Laboristak, eta Norvegia eta Suediako alderdi gehienak dira. Norvegiako Aurrerabidearen Alderdi ultraeskuindarra izan ezik (%20), bi Estatu hauetan alderdi politikoaren zuzendaritza organoen %30 gutxienez emakumeek osatzen dute. Finlandian ordea, alderdietako zuzendaritzetan emakumeak ez dira %30era heldu, Kristau Demokrazian izan ezik. Zentzu horretan esan behar da alderdi fin-

landiarrek ez dutela kuoten sistema erabiltzen; Norvegian eta Suedian ordea nahiko zabalduta dago (Unión Interparlamentaria, 1992a: 118-120).

«Handituz doan diferentziaren» joera orokorraren arabera, alderdiaren hierarkian gora egiten den neurrian, zuzendaritzako emakumeen portzentaia afiliatuena baino txikiagoa da. Hala ere, zenbait alderdietan zuzendaritzako emakumeen portzentaia afiliaziokoa baino handiagoa dute: Alemaniako eta Herbeheretako Berdeak, Alemaniako Sozialdemokratak, Espainiako Ezker Batua eta Alderdi Sozialista, Herbeheretako Kristau Demokrazia, eta Suediako Liberalak eta Komunistak. Esan behar da aipatu alderdi gehienek barne-karguak aukeratzeko hauteskunde-prozesuetan kuoten sistema erabiltzen dutela (Unión Interparlamentaria, 1992a: 115-120). Hortaz, alderdien ideologiak, neurri batean, euren zuzendaritza-organoetan emakumezkoak egotea eragiten du; barne-karguetan emakumeen portzentaia handienak ezkerreko alderdietan aurki daiteke.

Zuzendaritzako eta afiliatutako emakumeen arteko portzentaiaren diferentzia handienak lehen aipatu ditugun kasuetan eman dira: Italiako Kristau Demokraziak emakume afiliatuen portzentaia handia zuen (%39,5) bitartean, zuzendaritza-organoetan oso txikia zuen (%2,5). Frantziako RPR gaullistan emakume afiliatuen portzentaia %43koa den bitartean zuzendaritzan emakumeak %7,1 dira. Azpimarratu behar da emakume britainiarren afiliazio portzentaia handia izan arren, zuzendaritzako emakume-portzentaia Alderdi Liberaleko eta Laboristako %17aren eta Plaid Cymru, Galesko Alderdi Nazionalistako %32aren artean dagoela.

### 3.2. *Euskal Autonomia Erkidegoko alderdiak*

Aztertu diren EAEko alderdietan, emakume afiliatuak gizonak baino gutxiago direla ikus daiteke. 1995eko datuen arabera, emakumezkoen afiliazio-portzentaia IU-EBren %23aren eta PPren %41.2aren artean dago (ikus 9. taula). EAEko alderdiek, orokorrean eta kasu bakoitzean, beste herrialdeetako alderdi gehienetan ikusi ditugun emakumezkoen afiliazioaren kopuru txikiaren joera jarraitzen dute.

EAEko alderdien ezker/eskuin kokapena kontuan hartuta, ez da emakume afiliatuen kopuruaren kasuan diferentzia nabarmenik ikusten. Gai hori aztertzeke, Llerak egindako sailkapena aipatuko dugu; sailkapen horren arabera, PP eskuinean egongo litzateke, UA zentro-eskuinean, EAJ zentroan, eta EA, PSE, IU-EB eta HB ezker aldean egon-

**9. taula**

EAEko Alderdien emakumeen portzentaia afiliazioetan  
(1995)

	Emakumeak	%	Gizonak	%	Afiliatu guztira
EAJ	8.697	27.2	23.277	72.8	31.974
EA	5.810	39.3	8.982	60.7	14.792
HB	—	30	—	70	—
PSE	2.791	29.4	6.709	70.6	9.500
IU-EB	253	23	847	77	1.100
PP	953	41.2	1.361	58.8	2.314
UA	252	26.7	693	73.3	945

*Iturria:* Alderdiak emandako datuak. Herri Batasunak ez du militanten erregistrorik; hor-taz, koalizioak emandako ehunekoak gutxi gora-beherakoak dira.

go lirateke ordena horretan (Llera, 1994: 24).<sup>12</sup> Emakumezko afiliatuen portzentaia handiena PP eta EAn (ideologia desberdinekoak) ikus daiteke. Bi alderdi hauen ondoren, eta urruti samar, HB, PSE, EAJ eta UA alderdiak egongo dira, ordena horretan; portzentaia txikiena IU-EB alderdiak izan du. Datu horien arabera, eskuineko alderdietan emakumezkoen militantzia tasa handiagoa erakusten zuten joera tradizionalak bat ez datozela euskal errealtatearekin ikus daiteke.

EAEko alderdiak aztertzen jarraitzeko independentismo/zentralismo eskalan non kokatuta dauden aztertu behar da.<sup>13</sup> Hala ere, dimentsio hori ere ez da emakumezkoen afiliazioa interpretatzeko erabilgarria, goian adierazi bezala kopuru handienak PPn (joera zentralistaduna) eta EAn (alderdi abertzalea) ematen baitira. Gainerako alderdien zerrendan, emakumezkoen portzentaia altuenetik txikienera ipiniz gero, alderdi abertzaleak eta ez abertzaleak nahastuta agertzen dira. Ezin da esan, beraz, dimentsio ideologikoez (ezker/eskuin eskalan eta independentismo/zentralismo eskalan), emakumeek EAEko alderdietan duten afiliazio maila esplikatzen balio dutenik.

<sup>12</sup> Saillapen hori 1990eko hauteskunde autonomikoetan hautesleek esanda-koaren arabera alderdi bakoitzak ezker/eskuin dimentsioan lortutako batezbesteko puntuaketa oinarrituta eginda.

<sup>13</sup> Independentismo-zentralismo eskalan alderdiak ipintzeko hautesleen autodefinizioan oinarrituta Llerak egindako saillapena jarraituko da; kasu honetan 1986ko hauteskunde autonomikoetan oinarritutakoa da (Llera, 1994:26).

EAEko alderdietako barne-zuzendaritza karguei dagokienez, sexuen araberako osaketaren inguruko datuek erakutsi dute emakumeak gizonetzkoak baino gutxiago direla. Hala ere, joera orokor gisa ikus daiteke gero eta emakume gehiago daudela kargu horietan, HB eta IU-EB alderdien kasuetan izan ezik. Bestalde, afiliazio kopuruarekin konparatuta, buruzagitzan emakumeen portzentaiek beherantz egin dute, PSE eta IU-EB alderdien kasuetan izan ezik: bi hauetan buruzagitzan oinarrian baino emakume gehiago daude proportzioan; halaber, PSE alderdian zuzendaritzako erakunde gorenean postuen %34,5 emakumeek betetzen dituzte, portzentariarik altuena (ikus 9. taula). Azpimarra daiteke bi alderdiek ezker-ideologia dutela, eta beste hainbat neurriren artean, emakumeen ordezkaritza sustatzeko kuoten sistema erabiltzen duten alderdi bakarrak direla.

### 10. taula

EAEko alderdien emakumeen portzentaiek zuzendaritzan  
(1991-2000)

	1991			2000		
	Emakumeak	Zuze. guztira	%	Emakumeak	Zuze. guztira	%
EAJ	1	13	7.7	1	12	8.3
EA	—	—	10	5	18	27.7
HB	3	33	9.1	2	24	8.3
PSE	4	21	19.0	10	29	34.5
IU-EB	—	—	33.3	6	20	30.0
PP	3	21	14.3	13	53	24.5
UA	—	—	13.3	7	30	23.3

*Iturria:* Emakunde (1994): *Participación de las mujeres en la actividad política en Euskadi*. Vitoria, Gobierno Vasco, 54-56. or. eta alderdiek emandako datuak.

Kontuan hartutako bigarren sailkapenari dagokionez, alderdiek zentralismo/independentismo ardatzean duten kokapena, azpimarratu behar da bi alderdi abertzaleetako (EAJ eta HB) zuzendaritzek emakume-kopuru baxuena dutela bi une horietan. EAJren kasua oso nabarmena da; gaur egungo zuzendaritzan emakume bakar bat dago, aurrekoan berriz bat ere ez. HBko Mahai Nazionalean bi emakume besterik ez daude.

### 3.3. *Emakumeak ordezkari-tza karguetan*

Alderdi politikoetan emakumeen kopuruaren analisia kanporako proiektzioaren ikuspegitik ere egin daiteke. Alderdiek gaur egungo sistema politikoetan, beste hainbaten artean, ondoko funtzio nagusi hau betetzen dute: kargu publikoak betetzeko hautagaiak aukeratzea; hortaz, elite gobernatzailerarako behar den giza baliabideak ematen dituzte (Panebianco, 1990: 499). Ondoren, emakumeek betetako ordezkari-tza publikoko karguak aipatuko ditugu, alderdi bakoitzak kasu honetan nola jardun duen ikus ahal izateko. Horretarako, autonomia mailako datuen eboluzioan oinarrituko gara, hots, legegintzaldietan zehar emakumeek Eusko Legebiltzarrean betetako aulkiak ikusiko ditugu.

1980ko lehen hauteskunde autonomikoen ondoren, EAJK eta HBK bakarrik zituzten emakumeak euren ordezkari-tzetan: EAJK hogeita bost ordezkarietatik hiru eta HBK hamaikatik bat. Aurrerago, gainerako alderdietan emakumeen ordezkari-kopurua ere handitu egin zen. 1984an PSE eta PPK emakume parlamentario bana izan zuten. EA 1986an Legebiltzarrerera heldu zenean euren hamahiru aulkitik lau emakumeek betetzen zituzten; kopuru hori hurrengo deialdian murriztu egin zen. Hala ere garai horretan alderdi guztiek, PPK izan ezik, emakume parlamentarioen bat zuten. 1998an hasitako legegintzaldira arte alderdi honek ia ez du emakume parlamentariorik izan. Egoera hori aldatu egin da bere aulkien kopuruak gora egin duen neurrian: gaur egun hamasei ordezkarietatik bost emakumeak dira. Eusko Legebiltzarreko legegintzaldi bakoitzean emakumeen portzentaia handiena aurkeztu duten alderdiek ez dute kuoten sistema erabiltzen (ikus 11. taula): EAJK emakumeen proportzio handiena du 1980 eta 1984an, EAK 1986 eta 1994an eta UAK 1990 eta 1998an (bi aulkietako bat emakume batek betetzen du).

Ikus daitekeenez, kasu honetan alderdi abertzaleen jarrera barne-zuzendaritzako mailetan ikusitakoarekiko aldatu egiten da emakumeen kopuruari dagokionez; emakume parlamentarioen portzentaia ez da beste alderdiena baino txikiagoa izan. Bestalde, azpimarratu behar da kuotak erabili izanak ez duela talde parlamentarioetan emakume-kopurua handitzea eragin.

Aipatu ditugun datuak aztertu eta gero, ikus daiteke alderdi politikoetan gizonetakoak baino emakumetzako gutxiago daudela. Ondorio argi horrek azaldu dugun Europako alderdien kasurako eta EAEko alderdiatarako balio dezake. Horrek esan nahi du alderdiatarako afiliatu gehienak, salbuespenak salbuespen, gizonetakoak direla, alderdien kopuruen ideologikoa edozein izanik; hortaz, emakume afiliatuek gutxiago izaten jarraitzen dute.

## 11. taula

Alderdi bakoitzeko emakumeen portzentaien garapena Eusko-Legebiltzarrean (1980-1998)

	1980			1984			1986			1990			1994			1998		
	G	E	%	G	E	%	G	E	%	G	E	%	G	E	%	G	E	%
EAJ	25	3	12	32	5	15.6	17	2	11.8	22	6	27.3	22	6	27.3	21	6	28.6
EA	—	—	—	—	—	—	13	4	30.8	9	1	11.1	8	3	37.5	6	1	16.7
HB	11	1	9.1	11	1	9.1	13	2	15.4	13	2	15.4	11	4	36.4	14	4	28.6
EE	6	0	0	6	0	0	9	1	11.1	6	2	33.3	—	—	—	—	—	—
PSE	9	0	0	19	1	5.3	19	1	5.3	16	2	12.5	12	3	25.0	14	5	35.7
IU	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	6	1	16.7	2	0	0
PP	2	0	0	7	1	14.3	2	0	0	6	0	0	11	0	0	16	5	31.2
CDS	6	0	0	--	--	--	2	0	0	0	0	0	—	—	—	—	—	—
UA	—	—	—	—	—	—	—	—	—	3	2	66.7	5	1	20	2	1	50.0
GUZ	60	4	6.7	75	8	10.7	75	10	13.3	75	15	20	75	18	24	75	22	29.3

G Guztira.

E Emakumeak.

% Emakumeen portzentaia.

— Ez da aurkeztu.

*Iturria:* Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzua. Hautetsiak dira, ondorengo aldaketak ez baitira kon-tuan hartzen. IU-EB 1986tik aurkeztu denez, 1980 eta 1984ko datuak PCE-EPKkoak dira. Era berean, PPrentzat 1980an AP eta 1984 eta 1986ean CPko datuak hartu ditugu. CDSren kasuan 1980koak UCEn datuak dira. EE 1994 arte aurkeztu zen eta hurrezkeren PSEn integratua dago.

EAEko alderdiei buruzko datuak bat datoz beste alderdi guztietan ikusitako joera orokorrarekin; hots, zuzendaritza karguetan emakumeen portzentaia afiliazioarena baino txikiagoa da. Orokorrean ikusi dugu euskal alderdietako zuzendaritzen portzentaia Europako alderdi gehienek aurkeztutakoak baino zerbait txikiagoak direla. Dena den, azpimarratu behar da EAEko alderdi abertzaleetako zuzendaritzetan beste alderditakoetan baino emakume gutxiago izan direla. Era berean, ez dirudi eskuineko alderdiak direnik euren buruzagitzetan emakume gutxi dituztenak. Hortaz, afiliazioan sexuen araberrako osaketaren kasuan gertatzen ez zen bezala, esan daiteke neurri batean abertzaletasunak garrantzitsua izan dela, behinik behin emakumeak alderdi politikoetako barne-karguak betetzeari dagokionez.

Azkenik, Eusko Legebiltzarrean ordezkari-tza politikoa duten emakumeen kopurua gorantz joan da lehen legegintzaldietatik gaur egun arte. Gehikuntza horrek, hainbat sistema politikoetako ordezkari-tza-erakunde gehienetan gertatu bezala, ia alderdi guztietan eragin du, modu diferentean bada ere. Azken urteetan alderdi politikoetan gero

eta emakume gehiago sartu dira; horrek barne-erabakiak hartzerakoan eta hainbat erregimen politikotan alderdi hauek betetako erakunde mailako postuetan eragin garbia du. Gehikuntza hori eman arren, EAE-ko ordezkartza karguetan gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago izaten jarraitzen dute.

### 3.4. Zer egiten ari dira alderdiak?

Emakumeen kopuru mugatua kontuan hartuta, azken urteetan zenbait alderdik barnean (egiturako erabaki postuetan) nahiz kanpoan (alderdiko ordezkariak betetzen dituzten kargu publikoetan) emakumeak integratzeko estrategiak planteatu dituzte. Neurri hauek ezartzeak bi gauza adierazi nahi ditu: alde batetik, emakumeen kopuru txikia arazoa dela aitortzea eta bestetik, gai honen garrantzi politikoa. Alderdiek hartutako neurriak hiru estrategia motatan sailka daitezke (Lovenduski, 1993: 8): lehendabizi, *estrategia erretorikoek* diskurtsoaren mailan emakumeen eskaerak esplizituki onartzen dituzte eta emakume horien ordezkartza politikoa handitzeko beharraren aitopen publikoa eskatzen dute. Bestalde, *ekintza positiboko estrategiek* emakumeei politikan gehiago parte hartu dezaten lagundu nahi diete, alderdi barruan euren prestakuntza eta antolakuntza bultzatuz. Azkenik, *diskriminazio positiboko estrategiek* emakumeek gutxienezko ordezkapena ziurtatu nahi dute eta horretarako neurri zehatzak eskatzen dituzte, kuotak adibidez.

1980 hamarkadan alderdi ugari kuoten sistema ezarri arren, sistema hori ezarri beharra, justifikazioa eta emaitzen inguruko eztabaida ez da amaitu.<sup>14</sup> Eztabaidak, oinarri etikoaren mailan sortzeaz gain (inposaketa neurri bat zilegi ote denari buruz), gizarte posizioen banaketa zuzendu behar duten printzipioei buruzko azpiko kontzeptua ere esplizitu egiten du. Eztabaida honen inguruan sortutako iritzi kontrajarrien bizitasunak bizitza publikoan emakumeek eta beste taldeek parte har dezaten sustatzeko neurri zehatzei buruz gizarte bateko adostasun maila erakutsi du (Haug, 1995: 139). Neurriak hartzea defendatzen dutenek sistemaren eraginkortasuna azpimarratu dute, emakume politikarien kopuruak azkar gora egin dezan aukera ematen baitute.

---

<sup>14</sup> 1991ean egindako azterketaren arabera, munduko 56 alderdik kuoten sistema erabiltzen zuten, 22k legegintzarako hauteskundeetan egiten zuten, eta 51k barne-zuzendaritzako postuak betetzeko (Unión Interparlamentaria, 1992a: 110).



Neurri horien aurka berdintasuna aldarrikatzeko helburuarekin bat ez datozela argudiatu ohi dute. Ikuspegi honen arabera, ez da zuzena pertsona zehatz batzuei, emakume zehatzei, talde bateko kide izateagatik bakarrik zenbait helburu lortzen uztea; gainera, honek ez ditu talde osoaren eta emakume guztien abantailak bermatzen (Haug, 1995: 138). Zentzu horretan, kuoten aurkako argumentu nagusietako bat printzipio meritokratikoa da. Ikuspegi horretatik salatu dute kuoten sistemarekin, aukeraketa-irizpide gisa kualifikazio pertsonala erabili beharrean, sexua hartuko dela kontuan (kasu honetan emakumezkoa izatea). Argumentu horrek honako oinarri hau dauka: gure gizartean pertsonak lortutako posizioa norberaren merituen ondorio dela. Izan ere, printzipio meritokratikoa berdintasuna eta askatasunerako aurrebaldintza da, sistema demokratikoetarako beharrezko eta oinarritzko sinesmena. Sistema demokratikoetan dirua, jabetzak edo familia ezin dira faktore erabakigarriak izan pertsona baten bizitzan. Printzipio meritokratiko berak oinarri demokratiko gisa izan ditzakeen kritikak alde batera utzita, kuoten aldekoek diote gure gizartean posizioak ez direla balio indibidualaren arabera banatzen; hots, ez dute onartzen printzipio meritokratikoak errealitatean baliagarritasuna duenik (Haug, 1995: 140).

Alderdiez gain, emakumezkoen kuotak Estatuak ezarri ditzake ere, eta honela, kuota horiek bete beharra premia juridiko bihur dezakete. Gaur egun zenbait kasutan kuota ezarri da (modu eta maila diferentetan) emakumeak parlamentuan egotea ziurtatzeko (Unión Interparlamentaria, 1992a: 109-110): Argentinan 1991z geroztik Hauteskunde Legearen arabera, hautagaien %30 gutxienez emakumeak izan behar dute.<sup>15</sup> Frantzian, duela gutxi onartutako legearen arabera, parekotasun politikoaren legea, alderdietako hautagaien %50 emakumeak izan behar dute.<sup>16</sup> Parlamentuan emakumeen gutxienerako kopurua ziurta-

---

<sup>15</sup> Argentinako Kupoen Legeak, emakumezko parlamentarioen kopurua handitzeko xedea lortu du. Legea ezarri eta lehen hauteskundeetan (1993ko urria), Behe Ganbaran emakumezkoak %4.2tik %21.3ra pasatu ziren (Jones, 1996:82). Hala ere, ia alderdi guztiek hauteskunde-zerrendetan ez dute legeak agindutako kuota beteko; 1994ko konstituzioaren erreformak ezarritakoaren arabera, emakumezko hautagaien portzentaia ez errespetatzeagatik alderdia afiliatuek bakarrik salatu ahal izango dute (Jones, 1996. 80). Presio edo leialtasun arrazoiengatik honek salaketa egitea asko zaildu du.

<sup>16</sup> Lege honek udal-hauteskundeetan eta Europako hauteskundeetan emakumeek eta gizonek txandaka osatutako zerrendak aurkezteko beharra ezarri du. Hauteskunde orokorren kasuan, barruti uninominalen multzoan aurkeztuko dituzten hautagai-zerrendetan sexuen artean portzentaia orekatua aurkeztzen ez duten alderdiak zigortuko dituzte.

tzeko beste sistema kooptazioa da, hots, hauteskunderenak ez diren aukeraketa irizpideren baten bidez emakumeei aulki-kopuru zehatza gordetzen zaie. Bangladesh eta Eritrean gaur egun %9 aulki gordeko zaizkie emakumeei sistema honen bidez, Tanzanian, berriz, %6 (Inter-Parliamentary Union, 1995: 37). Nepalen, 1990eko Konstituzioaren arabera, Parlamentuko aulkien %5 emakumeei gordeko zaizkie. Azkenik, Filipinetan 1987ko Konstituzioaren arabera, ondoko hiru legegintzaldietan hautatutako ordezkarien erdiek gizarte talde mailako kideak izan beharko lukete eta horien artean emakumeak aipatzen zituzten. Sistema hori lehenago Egipto eta Pakistanen ere erabili zuten (Unión Interparlamentaria, 1992a: 110).

Alderdietan kuotak ezartzea garrantzitsua da, alde batetik, alderdi barruan emakumeen kopuruak gora egin dezan, eta bestetik, alderdiak bizitza politikorako giza baliabideen hornitzaile nagusiak direla kontuan hartuta, faktore erabakigarria bihurtuko da emakumeek erakunde-mailako politikan euren partaidetza sustatzeko garaian. Halaber, alderdi batek halako neurri motak ezartzen dituenean gainerakoek eredu horri jarraitzen diote (Skjeie, 1991: 236; Haug, 1995: 137). Ideologikoki zentroan eta eskuinean kokatutako alderdiek estrategia erretorikoagoak erabiltzeko joera dute; emakumeei aurrera egiteko eskatu arren, karguak aukeratzeko prozesuan lehia librea mantenduko dute (Norris, 1993: 320). Alderdi askok berdintasun printzipioaren aurka doazelako kuotak erabiltzeko asmo handirik ez izan arren, praktikan beren antolakuntzan emakumeen partehartzea sustatu dute portzentaia zorrotza erabili gabe. Zenbait alderdietako goi-kargutan diruditenak baino emakume gutxiago daude; izan ere, honelako kasu askotan emakumeek ageriko karguak betetzen dituzte (Lovenduski eta Randall, 1993: 155)<sup>17</sup>. Zentzu horretan interesgarria izango litzateke alderdi bakoitzak bere emakumeei eskainitako proiektzio publikoa kontuan hartzea; hots,

---

<sup>17</sup> Autoreek Britainia Handiko kontserbadoreekin konparatuta, laboristen gizon-itxurako irudia aipatu dute; gizartearen iritzi, kontserbadoreek goi-kargutan besteek baino emakume gehiago dituztelako, datuek aurkakoa esan arren. Tory alderdiko afiliazioan eta hautesleen artean emakume asko daude, parlamentua edo gobernuan gertatzen denaren arka: Margaret Thatcherren gidaritzapean izandako kabinetetan ez zen beste emakumerik. Laboristek, inkesten arabera, emakumeen lehentasun gehienak biltzen dituzten proposamenak eta jarrerak aurkeztu dituzte; hala ere, emakumeak «gutxiengo bitxi» gisa hartzen jarraitzen dituzte, gizarteko partaide moduan dituzten eskubideak erabat onartu gabe. Laborismo britainiarren ezaugarri hori mugimendu beraren muinaren bidez esplikatu litzateke, hots, sindikalismoaren kulturalen ematen den gizezkoen nagusitasuna (Lovenduski eta Randall, 1993: 155-161).

emakume-kopuruaz gain, emakume horiek gizartean zer nolako eragina duten ikusi beharko litzateke.

Kuotez gain, alderdi politikoetan emakumeak sustatzeko praktikara eramaten diren beste hainbat jarduketak daude. Emakume askok militantzian eta lan politikoan dituzten oztopoak kontuan hartuta, alderdietan euren partaidetza errazteko neurri praktikoak ezarri dira sarritan. Adibidez, alderdi askotan emakumeek bakarrik osatutako atalak antolatu dira; joera hori azken urteotan zabaldu egin da (Inter-Parliamentary Union, 1997: 21). Atal horiek oinarrian bi funtzio betetzen dituzte: alderdiari emakumeen arazo sozialen berri emateaz gain bizitza politikoan afiliatuen partaidetza sustatzen dute. Beste hainbat neurriren artean, familiarenganako erantzunkizunak daude, emakumeek euren gain hartu ohi dituztenak: esaterako, manifestazio, kongresu eta mintegiak antolatzen direnean, haurtzaindegiak antolatzea edo hori egin ezin den kasuetan, deialdien ondorioz sortutako haurtzaindegigastuak ordaintzea, eta bileren ordutegiak afiliatuen beharretara egokitztea (Inter-Parliamentary Union, 1997: 20). Bestetik, zenbait alderdik emakumeen prestakuntza sustatzeko beharra ikusi dute; era horretara, euren kontzientzia eta paper politikoa sustatuko dute, eta ondorioz, ikastaroak eta konferentziak antolatu dituzte.

EAEen kuoten sistema PSE eta IU-EB alderdietako estatutuetan (1988) bakarrik jaso da, buruzagitza-organoetan edo hauteskunde-zerrendetan emakumeen gutxieneko portzentaia bermatzeko asmoarekin. Bi alderdi horietan kuota hasieran Estatu-mailako erakunde federaleen kongresuetan erabaki zen eta ondoren, federazioen kongresuetan onartu egin zen; kongresu horien artean EAEkoak. PSOE eta IU alderdiek kuotak hasieran %25ean ezarri zituzten; bi kasuetan, ordea, kopuru hori handitu egin zuten 1994an egindako kongresuetan. Gaur egungo PSE alderdiaren estatutuaren arabera, hauteskunde-zerrendetan sexu bakoitzeko ordezkariak gutxienez %40 izan behar dute, barne-organoak zehazki aipatu gabe bada ere. IU-EB alderdiaren kasuan, organo eta hautagai-zerrenda guztietan %35 emakumezkoa edo gizonetzkoa izan behar du. Datu hori alderdiaren printzipio nagusi bat izango da.

Halaber, bi kasu horietan Estatu-mailako egitura federalean, emakumeari eskainitako arloa dago. Bertako arduraduna zuzendaritzako kidea da. PSOE alderdiaren kasuan Emakumearen Partaidetzarako Idazkaritzak oinarritzko konpromiso gisa bere gain hartuko ditu gizartearen eraldaketa eta emakumearen inkorporazioa. Xede hori konpentsazio politiken bidez eta egitura zehatzak sortuta beteko da. Bi lan-arlo nagusi ezarri dira: barrukoa, Idazkaritza sendotu eta beheko mailetara zabaltzen duena; eta kanpokoa, gizarteko emakume eta gizonen arteko aukeren berdintasunaren defentsa eskatzen duena. Antzeko arloa ere

badago EAEko federazioaren mailan 1988az geroztik. Une horretatik aurrera zuzendaritzan emakumez bakarrik arduratzen den Idazkaritza antolatu zen. Lehenago gai hori Gizarte Ekintzako Arloaren Idazkaritzaren barne zegoen, gazteria eta hirugarren adina bezala. Bestalde, Partaidetzarako Kontseilua dago; Kontseilu horrek, PSE alderdiaren Idazkaritza Nagusiaren kontsultarako organo gisa funtzionatzen du, berdintasun eta solidaritatea, emakumea, gazteria, ingurunea eta Gornuz Kanpoko Erakundeen politiken inguruko gaietan.

IU-EB alderdiaren artikulazioa hainbat lan-arloren funtzionamenduan oinarritzen da; arlo horiek jarraituta, talde lana egingo da. Arlo horiek bileretan antolatuko dira, Batzorde Iraunkorra eta koordinazio funtzioak betetzeko pertsona bat aukeratuko dituztelarik. Gaur egun indarrean diren estatutu arauen arabera hamahiru arlo daude; arlo horien artean Emakumearena egonik. Arlo honetan emakumeen partaidetza, aukera eta eskubideen berdintasuna eta zenbait gizarte eta ekonomia mailako gaitan arazo zehatzak aztertzen dituzte eta alderdiaren barruan politika feminista ere sustatuko dute.

Bestetik, HB erakundeak bere egiturako maila guztietan emakumeen ordezkartza parekidea lortzeko helburua du. Euren ustez, kuoten inposaketa ez da helburu hori lortzeko egokia eta beste neurri praktikoak erabili nahi ditu. Erakunde honetan gai horretaz arduratzen den egitura bikoitza dago: alde batetik, HBko Mahai Nazionalean 1989az geroztik Emakumearen Askatasunaren Mugimenduarekiko Harremanen Arloa izeneko atala dago, Emakumearen Arloa izenarekin ezagutzen dena. Funtzionamendu autonomia du eta erakundeko gainerako atalei (Mahai Nazionala barne) aholkuak eman, oharpenak ezarri eta iradokizunak egiten dizkie egokia iruditzen zaionean. Bestetik, arlo honek suspertzaileen lanak koordinatuko ditu. Suspertzaileak 1991z geroztik, emakumeekin lotutako gaien garrantzia sustatzeaz arduratzen dira, barne-egituran (parte hartzea bultzatuz, prestakuntza-zikloak eta eztabaidak antolatuz) nahiz kanpoan (koalizioak garatu ahal izateko ekimenak eta kanpainak proposatuz).<sup>18</sup> Azkenik, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan (ENAM), HB sartuta dagoen multzoan, *Egizan* talde feministak jarduten du. Kolektibo horrek garrantzi handia izan ohi du ezker abertzaletik egindako emakumeen aldarrikapenetan eta Euskadin Mugimendu Feministak planteatutako mobilizazioetan.

---

<sup>18</sup> Hori 1991n HBn landutako *Urrats Berri* izeneko barne-eztabaidarekin lotuta dago. Eztabaida horretan, %30eko emakumeen kopuruaren kuota proposamena atzera bota zen, eta emakumeen partehartzea sustatzeko neurri paraleloak ezarri ziren. Neurri horien artean, suspertzailea egongo litzateke.

EAJ alderdiak orain arte ez du bere barne-egituran edo hauteskundeetako hautesleen zerrendan emakumeak egoteko neurririk ezarri. Estatutuetan definitu ez den arren, Emakumearen Batzorde bat dago, eta bertako arduraduna alderdiko buruzagitza nagusiko (Euskadiko Buru Batzarra edo EBB) kide da. Hala ere, gaur egun emakumeei zuzendutako atal zehatza formalki eratzeko aukera planteatzen ari dira. Azpimarratu behar da alderdi honen historian emakumez bakarrik osatutako egitura bazegoela: *Emakume Abertzale Batza*, 1922an sortua<sup>19</sup> eta EAJ alderdiaren ideiekin bat zetorrena. Erakunde horren helburu nagusiak hezkuntza erlijioso, kulturala eta morala, euskararen sustapena eta karitatezko ekintzak egitea ziren.<sup>20</sup> Primo de Riveraren diktadura aldarrikatu ondoren, 1923an desaginda, *Emakume Abertzale Batza* taldea 1931n berriz antolatu zen eta 28.500 afiliatu lortu zituen Gerra Zibilaren aurretik. Une horretan desagertu egin zen (Larrañaga, 1978: 58).

Zenbait urte beranduago, 1977ko, EAJko Batzar Nazionalean, alderdi honek transizioaren ondoren egin zuen lehendabizikoan, emakumearen bazterketa salatu eta gizonarekiko berdintasuna aldarrikatu zuen. Gaia 1987an aztertu zen berriro Batzar Nazionalean emakumearen arazoari buruzko batzordea sortzea erabaki zutenean, bertan emakumeek alderdiaren barnean parte hartzeari buruzko gogoetak egin zituzaten batez ere. Erabakiaren ondorioz, txostena egin zuten: desberdintasun egoera egiaztatu zen eta ekintza positiboa ere aipatu zen, aukeren berdintasuna lortzeko bitarteko gisa.

Eako estatutuetan, gizarte zuzenagoa lortzeko (euren oinarritzko xede programatikoetako bat) bitarteko gisa, aukeren berdintasunaren printzipioa jaso da. Alderdi honek hasieran Emakumearen Idazkaritza izeneko adarra sortu zuen, emakumea gizarte-arlo guztietan erabat integratzea sustatzeko neurriak bultzatzeko asmoarekin. Hala ere, atal hori kendu egin zuten 1989an berdintasunaren eskubidearekin bat ez zetorrela adierazten zuen proposamena onartu ondoren. Une horretan emakumeen arazoak gainerako gaiekin batera alderdiaren maila guztietan aztertu behar zirela erabaki zuten, ez baitzegoen idazkaritza espezifikoa eratzeko beharrik. Alderdi honek emakumeen kopuruak gora egin dezan ez du barne-neurri zehatzik hartu. Hala ere, 1989ko

<sup>19</sup> Halako elkarte sortzeko ideia 1922ko apirilean, buruzagi nazionalista irlandar batek Euskadin *Cumann nan Ban* emakume abertzale irlandarraren esperientzia ezagutzera eman ondoren sortu zen. (Larrañaga, 1978:34)

<sup>20</sup> Helburu horiek «Manifiesto de la Mujer Patriota» dokumentuan jaso dira. (Larrañaga, 1978 48-54).

Batzarrean onartu ziren aldaketak egin zirenez geroztik, estatutuetan alderdiko emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzeko konpromisoari buruzko xedapena gehitu zuten. Honen ondorioz, alderdi honen hauteskunde-zerrendetan emakume asko aurkeztu dira. Esan daiteke EAK emakumeak zerrendetan sartuz irudi berria eta progresista erakutsi nahi duela.

PPk ez du kuoten erabilera onartu, alderdi horretan afiliatuak baikoitzaren denboraren eta baliabideen arabera zerbitzua eskaini behar dutelako eta ez da sexuan oinarritutako diferentziarik egongo. Hori guztiaren ondorioz, alderdiaren estatutuetan ez dira xedapen bereziak ezarriko eta barne-egituran ez dago emakumei eskainitako atal berezirik; hala ere Arabaren kasuan, alderdiarekin bat datorren emakumeen elkarte bat dago, «Mujeres para la Democracia» izeneko.

UA alderdia halaber, kuotak eta beste edozein motako neurri espezifikokoak martxan jartzearen aurkakoa da, emakumeak «tratamendu bereziko» gaia bihurtzea iraina dela uste duelako. Gaur egun indarrean dituzten estatutuetan beraz, ez dira honen inguruko neurriak jasoko, pertsonen arteko berdintasuna eta aukeren berdintasuna bertan jasotako baloreetako bat den arren. Hala ere, alderdiaren egituratik kanpo egon arren, «Loreto de Arriola» izeneko elkarte dago. Elkarte honek alderdiari emakumeekin lotutako gaiei buruzko aholkuak eskaintzen dizkio.

Hortaz, EAEko hiru alderdik, IU-EB, PSE eta HB, emakumeen paper politikoa sustatzeko neurriak hartu behar direla uste dute. Hiru kasu horietan, barne-egiturak helburu hori islatuko duen arren, HBk ez du kuoten erabilera onartzen. Gainerako alderdiak, EAJ, EA, PP eta UA, edozein neurri ezartzearen aurka daude, diotenez, emakumea ez dutelako baztertzeko; beraz, ez da antzeko neurririk ezarri behar. Horrela, beste hainbat tokietan gertatu bezala, ideologikoki ezkerretik hurbilen dauden alderdiek euren egitura eta jardueretan emakumeen partaidetza sustatzeko asmo handienak azaldu ohi dituzte.

#### 4. Balorazioa: argiak eta itzalak

Emakumeen eskubideen bilakaera historikoaren balorazio orokorra egiterakoan ondorio baikorrak eta ezkorrak antzeman daitezke, lorpen distiratsuekin batera hutsune ilunak ere. Prozesu luze honek ekarri duen ondorioz baikorrena emakumeen eskubideak Giza Eskubideen barruan integratu izana da. Hau ez da nolana hiko kontua izan, borroka bizi batek eragindako garaipen garrantzitsua baizik. Horregatik gu baino lehen izan diren emakume aitzindari gogotsuak aintzat hartu behar ditugu, iritzi isolatu gisa nahiz taldeetan antolatuta zirenak. Haiek erakutsi zuten kemenak emakumeen berdintasunaren aldeko mugimenduari bidea ireki zion. Hasiera batean, ahots ausarti haiek antolaketa politiko garaikideen oinarrien koherentzia eza mahaigaineratu zuten. Ilustrazioak moldatu zuen hiritar kontzeptuaren sasinneutralitatea aditzera eman zuten gizonezkoaren nagusitasuna sendotzeko tresna baino ez zela izan azpimarratuz. Orduetik gaurdaino lan teoriko eta ekimen praktikoa anitz bitartez emakumeen bazterketaren salaketa gauzatu egin da.

Nazio Batuek eta bestelako nazioarteko erakundeek honen inguruan egindako lana aztertzerakoan, emakumeen eskubideen alde lorpenak izan direla esan behar da. Ezarritako tresna juridiko eta hartutako erabakiak nahikoa izan ez badira ere, funtsezko helburu bat lortu dute: gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna arazo globala dela adierazi eta instituzioen partehartzearen beharra azpimarratu dute. Bestalde, erakunde hauen eraginez bereizkeriaren ezagupena asko landu da eta honela, munduko emakumeek bizi duten egoera aztertu eta irtenbideak proposatzeko aurrerapasuak eman ahal izan dira.

Sexuan oinarritzen den diskriminazioa gizarte-esparru gehienetan ematen da modu batean ala bestean. Ikusi dugun bezala, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna politika arloan nabarmena da ere.

Azken urteetan emakumeen presentziak instituzio politiko guztietan gora egin du baina oraindik gizonezkoen kopurua baino askoz ere txikiagoa da. Instituzioek eta alderdiek hainbat irtenbide proposatu dituzte kopuru orekatuago bat lortzeko asmoz. Neurri zehatz baten egokitasuna edo benetako eraginkortasunari buruz desadostasuna egon daiteke baina neurrien ezarpen berak emakumeen presentzia beharrezkotzat jotzen dela esan nahi du, emakumeek erabaki guneetan egon behar dutela, alegia. Batetik, eskubideen arrazoia azaldu ohi da, emakumeek iritziak, nahiak eta eskakizunak planteatzeko eskubidea dutela esanez. Bestetik, politikaren proiektzio publikoa kontuan harturik, oraindik garrantzitsuago izan daiteke bestelako argudioa, erreferentzi sinbolikoaren argudioa: instituzio politikoetan emakume gehiago egongo balitz, emakume hauen irudiak gizartean emakumeenganako begirunea areagotuko luke. Argudio honen arabera diskriminazioa ezabatzeke borroka ez da soilik ikuspegi liberalak azpimarratzen duen eskubideen gaia edo ikuspegi sozialistak adierazten duen baliabideen banaketa arazoa; hori guztia ezezik, gizakion berdintasuna gizartean bizi garen guztion balorazio eta estimazio kontua ere bada.



## Bibliografía

- APPLETON, Andrew eta MAZUR, Amy G. (1993): «Transformation and Modernization: the Rhetoric and Reality of Gender and Party Politics in France», Joni Lovenduski eta Pippa NORRIS (ed): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 86-112.
- ASTELARRA, Judith (1986): *Las mujeres podemos: otra visión política*. Madrid, Icaria.
- ASTELARRA, Judith (1990): *Participación política de las mujeres*. Madrid, CIS.
- BALLESTEROS, Jesús (ed.): *Derechos Humanos*. Madrid, Tecnos.
- BARBADILLO, Patricia; JUSTE, M.<sup>a</sup> Gracia eta RAMÍREZ, Ana (1990): «La mujer en el Congreso de los Diputados: análisis de su participación en las candidaturas electorales (1989)», *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 52, 101-135.
- BASHEVKIN, Sylvia B. (1993): *Toeing the Lines: Women and Party Politics in English Canada*. Toronto, Oxford University Press.
- BUSTELO, Carlota (1994): «Democracia y participación política de las mujeres: Obstáculos y logros. El caso de España», Instituto de la Mujer: *Mujer, Poder Político y Desarrollo*, Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales, 18-28.
- BUSTELO, Carlota (1996): «Progresos y obstáculos en la aplicación de la Convención para la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer», Fernando M. Mariño Menéndez (ed): *La protección internacional de los derechos de la mujer tras la conferencia de Pekín 1995*. Madrid, Universidad Carlos III, 31-56.
- CAPEL MARTÍNEZ, Rosa M.<sup>a</sup> (1992): *El sufragio femenino en la Segunda República española*. Madrid, Horas y Horas.
- CARRILLO SALCEDO, Juan Antonio (1999): *Dignidad frente a barbarie: La Declaración Universal de Derechos Humanos, 50 años después*. Madrid, Trotta.
- CARROLL, Susan J. (1994): *Women as Candidates in American Politics*. Bloomington, Indiana University Press.
- CASTELLS, Carme (1996): *Perspectivas feministas en teoría política*. Barcelona, Paidós.

- DE MARTINO, Giulio eta BRUZZESE, Marina (1996): *Las filósofas: las mujeres protagonistas en la historia del pensamiento*. Madrid, Cátedra.
- DE MIGUEL, Ana eta COBO, Rosa (1997): «Implicaciones políticas del feminismo», QUESADA, Fernando (ed.): *Filosofía Política: Ideas políticas y movimientos sociales*. Madrid, Trotta, 203-215.
- DUVERGER, Maurice (1981): *Los partidos políticos*. Madrid, FCE.
- ELIZONDO, Arantxa eta MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, Eva (1995): «Presencia de mujeres y política para la igualdad entre los sexos: el caso de las instituciones políticas vascas (1980-1994)», *Revista de Estudios Políticos*, 89, 345-368.
- ELIZONDO, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria, Gobierno Vasco.
- EMAKUNDE (1994): *Participación de las mujeres en la actividad política en Euzkadi*. Vitoria, Gobierno Vasco.
- EVANS, Richard J. (1980): *Las feministas: los movimientos de emancipación de la mujer en Europa, América y Australasia (1840-1920)*. Madrid, Siglo XXI.
- FAGOAGA, Concha (1985): *La voz y el voto de las mujeres: el Sufragismo en España*. Barcelona, Icaria.
- FERNÁNDEZ, Encarnación (1992): «Los Derechos de las mujeres», Jesús BALLESTEROS (ed.): *Derechos Humanos*. Madrid, Tecnos, 144-162.
- GAITÁN, Juan Antonio eta CÁCERES, M.<sup>a</sup> Dolores (1995): «La mujer en el discurso político», *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 69, 125-147.
- GARCÍA, Carmelo (1999): *Los Derechos Humanos en la situación actual del mundo*. Madrid, PPC.
- GÓMEZ ISA, Felipe (1998): *El Derecho al desarrollo: entre la justicia y la solidaridad*. Bilbao, Universidad de Deusto.
- GUADAGNINI, Marila (1993): «A "Partitocrazia" Without Women: The Case of The Italian Party System», Joni LOVENDUSKI eta Pippa NORRIS (eds.): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 168-204.
- HAUG, Frigga (1995): «The Quota Demand and Feminist Politics», *New Left Review*, 209, 137-144.
- HERNES, Helga M.<sup>a</sup> (1990): *El poder de las mujeres y el estado del bienestar*. Madrid, Vindicación Feminista.
- INSTITUTO DE LA MUJER (1992): *La mujer en cifras 1992*. Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales.
- INSTITUTO DE LA MUJER (1994): *Las españolas en el umbral del siglo XXI*. Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales.
- INSTITUTO DE LA MUJER (1997): *Las mujeres en cifras 1997*. Madrid, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- INTER-PARLIAMENTARY UNION (1995): *Women in Parliaments: 1945-1995*. Ginebra.
- INTER-PARLIAMENTARY UNION (1997): *Men and Women in Politics: Democracy Still in the Making*. Ginebra.
- INTER-PARLIAMENTARY UNION (2000), Webguneak:  
<http://www.ipu.org/wmn-e/classif.htm>  
<http://www.ipu.org/wmn-e/world.htm>

- JENNINGS, M. Kent (1990): «Women in Party Politics», TILLY, Louise A, GURIN, Patricia (eds.): *Women Politics and Change*. New York, Russell Sage, 221-247.
- JONES, Mark P. (1996): «Increasing Women's Representation Via Gender Quotas: The Argentine Ley de Cupos», *Women and Politics*, 16, 4, 75-98.
- KATZ, Richard S. eta MAIR, Peter (1992): *Party Organizations: A data handbook on Party Organizations in Western Democracies*. London, Sage.
- KATZ, Richard S. eta MAIR, Peter (1994): *How Parties Organize*. London, Sage.
- KOLINSKY, Eva (1993): «Party Change and Women's Representation in Unified Germany», Joni Lovenduski eta Pippa NORRIS (ed.): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 113-146.
- LEIJENAAR, Monique (1993): «A Battle for Power: Selecting Candidates in the Netherlands», Joni Lovenduski eta Pippa NORRIS (ed.): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 205-230.
- LARRAÑAGA, Policarpo de (1978): *Emakume Abertzale Batza: La mujer en el Nacionalismo Vasco*. Donostia, Auñamendi.
- LLERA, Francisco J. (1994): *Los vascos y la política*. Bilbao, Universidad del País Vasco.
- LOVENDUSKI, Joni (1993): «Introduction: the Dynamics of Gender and Party», Joni Lovenduski eta Pippa NORRIS (ed.): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 1-15.
- LOVENDUSKI, Joni eta NORRIS, Pippa (1993): *Gender and Party Politics*. London, Sage.
- MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M. (eds.) (1996): *La protección internacional de los derechos de la mujer tras la conferencia de Pekín 1995*. Madrid, Universidad Carlos.
- MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, Eva (1997): «Políticas públicas para la igualdad entre los sexos: reflexiones sobre el caso español (1975-1997)», Edurne URIARTE eta Arantxa ELIZONDO (eds.): *Mujeres en política*. Barcelona, Ariel, 211-232.
- MOLLER OKIN, Susan (1997): «La política y las desigualdades complejas de género», David MILLER eta Michael WALZER (bil.): *Pluralismo, justicia e igualdad*. México: FCE, 161-190.
- NACIONES UNIDAS (1992): «Vida pública y liderazgo», *Situación de la mujer en el mundo 1970-1990*. New York, 31-43.
- NORRIS, Pippa (1987): *Politics and Sexual Equality*. Brighton, Wheatsheaf.
- NORRIS, Pippa (1993): «Conclusions: Comparing Legislative Recruitment», Joni Lovenduski eta Pippa NORRIS (ed.): *Gender and Party Politics*. London, Sage, 309-330.
- NORRIS, Pippa eta LOVENDUSKI, Joni (1993): «"If Only More Candidates Came Forward": Supply-Side Explanations of Candidate Selection in Britain», *British Journal of Political Science*, 23, 373-408.
- PANEBIANCO, Angelo (1990): *Modelos de partido*. Madrid, Alianza.
- PHILLIPS, Anne (1999): «La política de la presencia: la reforma de la representación política», Soledad GARCÍA eta Steven LUKES (bil.): *Ciudadanía: justicia social, identidad y participación*. Madrid: Siglo XXI, 235-256.
- PUTNAM, Robert D. (1976): *The Comparative Study of Political Elites*. Englewood Cliffs, New Jersey, Prentice Hall.

- SKJEIE, Hege (1991): «The Rhetoric of Difference: on women's inclusion into political elites», *Politics and Society*, 19, 2, 233-263.
- UGALDE, Mercedes (1993): *Mujeres y Nacionalismo Vasco: Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936*. Bilbao, Universidad del País Vasco.
- UNIFEM (2000), Webgunea: <http://www.unifem.undp.org/cedaw.htm>
- UNIÓN INTERPARLAMENTARIA (1992a): *Las mujeres y el poder político. Encuesta realizada en los 150 Parlamentos Nacionales existentes al 31 de octubre de 1991*. Madrid, Congreso de Diputados.
- UNIÓN INTERPARLAMENTARIA (1992b): *Distribución de los escaños entre los hombres y mujeres en los Parlamentos Nacionales*. Madrid, Congreso de Diputados.
- URIARTE, Edurne (1995): «Mujer y política en España», *Sistema*, 124, 121-136.
- URIARTE, Edurne eta ELIZONDO, Arantxa (eds.) (1997): *Mujeres en política*. Barcelona, Ariel.
- VALCÁRCEL, Amelia (1997): *La política de las mujeres*. Madrid, Cátedra.
- WEBER, Max (1964): *Economía y sociedad: Esbozo de sociología comprensiva*. México, FCE (gaztelaniako bigarren argitaraldia, 1922ko originalaren itzulpena).
- WOLINETZ, Steven B. (1988): *Parties and Party Systems in Liberal Democracies*. London, Routledge.

Eranskina

## **Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa**

Konbentzio honetako Estatu Kideek

Aintzat hartuta Nazio Batuen Sortze-Agiriak gizakiaren funtsezko eskubide, gizakiaren duintasun eta balio eta gizon eta emakumearen eskubide berdintasunarekiko fedea birbaiezten duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak diskriminaziorik ezaren printzipioa birbaieztu eta gizaki guztiak libre eta duintasun eta eskubideetan berdin jaiotzen direla eta pertsona orok Adierazpen horretan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak, inolako bereizketarik gabe, eta, ondorioz, sexu bereizketarik gabe, eska ditzakeela aldarrikatzen duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunetako Estatu Kideek gizonari eta emakumeari eskubide politiko, sozial, kultural, zibil eta ekonomikoen gozamen berdintasuna bermatu behar dietela,

Kontuan izanik, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, Nazio Batuen eta erakunde espezializatuen babespean hitzartutako nazioarteko konbentzioak,

Kontuan izanik halaber Nazio Batuek eta erakunde espezializatuek, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, onartutako erabaki, adierazpen eta gomendioak,

Kezkaturik, ordea, tresna ezberdin hauek gora-behera, emakumeek diskriminazio garrantzitsuak jasaten jarraitzen dutela ikusterakoan,

Gogoraraziz emakumearen kontrako diskriminazioak eskubide berdintasunaren eta giza duintasunaren errespetua hausten dituela, emakumeak bere herriko politika, gizarte, ekonomi eta kultur bizitzan, gizonaren baldintzetan eurretan, esku hartzea galarazten duela, gizartearen

eta familiaren ongizatea gehitzeko eragozpena dela eta emakumearen ahalbideak, bere herriari eta gizateriari zerbitzu egitekoak, oztopatzen dituela,

Kezkaturik, pobrezia egoeretan, emakumeak elikadura, osasun, irakaskuntza gaikuntza eta enplegu aukeretara nahiz beste beharrian bazuk betetzera iristeko duen aukera oso urria delako,

Sinistuta, berdinkidetasunean eta justizian oinarritutako nazioarteko ekonomi antolaketa berria ezartzeak gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bultzatzeko nabarmenki lagunduko duela,

Azpimarratuz bereizkeria (apartheid), arrazakeria, arrazako diskriminazio, atzerritar kolonialismo, neokolonialismo, eraso, okupazio eta dominazio era guztiak nahiz Estatuaren barne arazoetan eskusartzea ezabatzea ezinbestekoa dela gizonaren eta emakumearen eskubideen bete-beteko gozamina izateko,

Baieztauz nazioarteko bake eta segurtasuna indartzea, nazioarteko tentsioa arintzea, Estatu guztien arteko lankidetzaren euren ekonomi eta gizarte sistemak gora-behera, nazioarteko kontrol hertsia eta egiazkoaren menpeko desarme orokor eta osoa eta, zehazki, desarme nuklearra, justizia, berdintasuna eta elkarren onura herrien arteko harremanetan eta dominazio kolonial eta atzerritarren menpeko herrien burujabetasun aske eta independentziaren eskubidea erabiltzea, eta nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren errespetua, gizarte aurrerapen eta garapenaren bultzagarri eta, ondorioz, gizonaren eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko lagungarri izango direla,

Sinistuta emakumearen partaidetzarik handiena, alor guztietan eta gizonaren baldintza berdinetan, ezinbestekoa dela herri baten garapen bete eta osoa, munduko ongizatea eta bakearen helburua lortzeko,

Gogoan izanik emakumeak familiaren ongizaterako eta gizartearen garapenerako egiten duen ekarpen handia, orain arte guztiz aitorturik ez dagoena, amatasunaren garrantzi soziala eta gurasoek familian eta seme-alaben hezkuntzan betetzen duten eginkizuna, eta jabeturik gaudela emakumeak ugalketan duen eginkizuna ez dela diskriminaziorako arrazoi izan behar, baizik eta umeen hezkuntzak gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna, eta gizarte osoarena, behar duela,

Aitorturik gizon eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko aldatu egin behar dela gizonak nahiz emakumeak gizartean eta familian duten ohizko eginkizuna,

Erabakita emakumearen kontrako diskriminazioaren ezabapenari buruzko Adierazpenean aldarrikatzen diren printzipioak aplikatzera eta, horretarako, diskriminazio hau bere era eta ageripide guztietan ezabatzeko behar izan daitezen neurriak hartzera,

Hurrengo erabaki dute:

## I. Zatia

### 1. artikulua

Konbentzio honi dagokionean, «emakumearen kontrako diskriminazioa» esapideak, sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gora-behera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamina edo erabilera gutxitu edo ezeztatzeo helburuz edo emaitzaz egindakoa.

### 2. artikulua

Estatu Kideek gaitzetsi egiten dituzte emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak, emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeo politika bat, bide egokietatik eta luzatu gabe, jarraitzea erabaki eta, horretarako, gain hartzen dute honako hau:

- a) Gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren printzipioa finkatzea, oraindik egin ez badute, beren nazio konstituzioetan eta beste edozein legeria egokitan, eta, lege bidez edo bestelako bide egokietatik, printzipio honen gauzatze praktikoa segurtatzea;
- b) Emakumearen kontrako edozein diskriminazio debekatzen duten neurri egokiak hartzea, legegintzazkoak eta bestelakoak, dagozkien zehapenekin;
- c) Emakumearen eskubideen babes juridikoa ezartzea, gizoneneko berdintasunean oinarriturik, eta nazioko auzitegien edo eskudunen bitartez eta bestelako erakunde publikoen bitartez, emakumearen benetako babesa bermatzea edozein diskriminazio egintzaren aurka;
- d) Emakumearen aurkako inolako diskriminazio egintzarik edo praktikarik ez egitea eta agintari eta erakunde publikoek betebeharrak honi atxikiz jardun dezaten arduratzea;
- e) Edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen kontra egindako diskriminazioa ezabatzeko beharrezko neurriak hartzea;
- f) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten lege, araudi, erabilera eta praktikak aldatu edo indargabetzeko beharrezko neurriak hartzea, are legegintzazkoak ere;
- g) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten nazioko zigor-xedapen guztiak indargabetzea.

### 3. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legegintzazkoak ere, esparru guztietan, eta bereziki esparru politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan, emakumearen garapen eta aurrerapen osoa segurtatzeko, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen erabilera eta gozamina gizonaren baldintza berdintasunez bermatzeko xedez.

### 4. artikulua

1. Estatu Kideek, gizonaren eta emakumearen arteko benetako berdintasuna bizkortzeko, aldibaterako neurri bereziak hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko Konbentzio honetan definituriko eran, baina ez du inola ere, bere ondorioz, arau ezberdin edo bereziei eusterik ekarriko; neurri hauek amaitu egingo dira aukera eta tratu berdintasunaren helburuak lortutakoan.

2. Estatu Kideek amatasuna babesteko neurri bereziak, are Konbentzio honetan biltzen direnak, hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko.

### 5. artikulua

Estatu Kideek honako hauetarako neurri egoki guztiak hartuko dituzte:

- a) Gizon eta emakumeen portaera eredu soziokulturalak aldatze-koak, sexuetako baten gutxiagotasun edo gehiagotasunaren ideian nahiz gizonen eta emakumeen egozten zaizkien eginkizun estereotipuetan oinarritzen diren ohizko aurritzi eta praktikak ezabatzeko helburuz;
- b) Famili hezkuntzan amatasunaren gizarte funtzioa behar bezala ulertzea eta gizonen zein emakumeen seme-alaben hezkuntza eta garapenari dagokionean duten erantzunkidetasuna onartzea bermatzekoak, seme-alaben interesa kasu guztietan ardura behinena izango delako ustean.

### 6. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legegintzazkoak ere, emakumeen tratu eta emakumearen prostituzioaren ustiapen era guztiak ezabatzeko.



## II. *Zatia*

### 7. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, herriko bizitza politiko eta publikoan, emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeke eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diete gizonetikiko baldintza berdintasunean:

- a) Hauteskunde eta referendum publiko guztietan boto ematekoa eta organismo guztietarako hautagai izatekoa, hauetako kideak hauteskunde publikoen gai direnean;
- b) Gobernuen politiken formulazio eta burutzapenean parte hartzekoa eta kargu publikoak eduki eta gobernu-maila guztietako funtzio publiko guztietan aritzeko;
- c) Herriko bizitza publiko eta politikoan aritzen diren gobernuen kanpoko erakunde eta elkarteetan parte hartzekoa.

### 8. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumeari, gizonarekiko baldintza berdintasunean eta inolako diskriminaziorik gabe, bere gobernu nazioarteko mailan ordezkatzeko eta nazioarteko erakundeen zereginetan esku hartzea bermatzeko.

### 9. artikulua

1. Estatu Kideek gizonen eskubideak eurak emango dizkiete emakumeei beren naziotasuna hartu, aldatu edo kontserbatzeko. Bermatu egingo dute, zehazki, atzerritar batekin ezkondu eta egotearen edo, senar-emazte barruan, senarrak bere naziotasuna aldatzearen ondorioz, emaztea automatikoki bere naziotasuna aldatu, aberrigabe bihurtu edo ezkontidearen naziotasuna hartzera beharturik ez egotea.

2. Estatu Kideek gizonaren eskubideak eurak emango dizkiote emakumeari seme-alaben naziotasunari dagokionean.

## III. *Zatia*

### 10. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeke, hezkuntzaren esparruan gizonaren eskubide berberak segurtatzeko xedez eta, zehazki, gizonen eta

emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, honako hauek segurtatzeko:

- a) Orientazio baldintza berberak karrera eta lanbide gaikuntzaren gaitan, ikasketetara iristea eta diplomak lortzea, kategoria guztietako irakaskuntza erakundeetan, baserrialdeetan nahiz hirialdeetan; berdintasun hau segurtatu beharko da eskolaurreko irakaskuntzan, orokorrean, teknikoan eta lanbidezkoan, goi hezkuntza teknikoa barne, eta bai lanbide gaikuntza mota guztietan ere;
- b) Ikasketak programa berberetara eta azterketa berberetara iristeko aukera, lanbide maila bereko irakasleak eta kalitate bereko eskola lokalak eta hornidurak;
- c) Gizonaren eta emakumearen eginkizunei buruzko kontzeptu estereotipatu guztiak ezabatzea, irakaskuntzako maila eta era guztietan, hezkuntza nahasia eta helburu hau lortzeko lagungarri izan daitezen bestelako hezkuntza motak bultzatuz eta, zehazki, eskola liburuak eta programak aldatuz eta irakaskuntza metodoak egokituz;
- d) Ikasketak egiteko bekak eta bestelako dirulaguntzak lortzeko aukera berdintasuna;
- e) Hezkuntza osagarriaren programetara iristeko aukera berdintasuna, alfabetatze funtzionalaren eta helduentzakoaren programetara barne, gizonaren eta emakumearen arteko ezagupen-diferentzia ahalbait lasterren gutxitzeari begira;
- f) Emakumeen ikasketak-utzieraren tasa gutxitzea eta ikasketak garaiz aurretik utzi dituzten andre gazte eta helduentzako programak antolatzea;
- g) Kiroletan eta gorputz hezkuntzan era ekinkorrez esku hartzeko aukera berdintasuna;
- h) Familiaren osasuna eta ongizatea segurtatzeko laguntzen duen informazio berezira iristea, familiaren plangintzari buruzko informazio eta aholkua barne.

## 11. artikulua

1. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte enpleguaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan eskubide berberak eta, zehazki, honako hauek segurtatzeko xedez:

- a) Lanerako eskubidea, gizaki ororen eskubide alienaezina den aldetik;

- b) Enplegu aukera berberetarako eskubidea, enpleguetan hautespen irizpide berberak aplikatzekoa barne;
- c) Lanbidea eta enplegua askatasunez aukeratzeko eskubidea, enpleguan igotzeko, egonkortasuna edukitzeko eta prestazio eta gainerako zerbitzu baldintza guztietarako eskubidea, eta lanbide hezkuntza eta birtrebakuntzara iristeko eskubidea, ikasketa, goi lanbide-prestakuntza eta aldizkako trebakuntzarakoa barne;
- d) Ordainketa eta prestazio berdinetarako eta tratu berdintasunerako eskubidea balio bereko lanari dagokionean, bai eta tratu berdintasunerako eskubidea lanaren kalitatearen ebaluazioari dagokionean ere;
- e) Gizarte segurantzarako eskubidea, zehazki, jubilazio, langabezia, gaixotasun, elbarritasun, zahartzaro edo lan egiteko bestelako ezgaitasunen kasuetan, bai eta ordaindutako oporretarako eskubidea ere;
- f) Osasunaren babeserako eta lan baldintzetako segurantzarako eskubidea, ugalketa funtzioaren zaintzarakoa barne.

2. Ezkontza edo amatasuna dela-eta, emakumearen kontrako diskriminazioa galarazteko eta lan egiteko duen eskubidearen eragingarritasuna bermatzeko, Estatu Kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte:

- a) Haurdunaldi edo amatasun-lizentziaren ziozko kanporaketa eta, kanporaketetan, egoera zibilaren ziozko diskriminazioa debekatzeko, zehapen zigorpean;
- b) Amatasun-lizentzia ezartzeko, soldata ordainduarekin edo prestazio sozial parekagarriekin, aurretiko enplegua, aintzinasuna edo onura sozialak galdu gabe;
- c) Laguntzazko zerbitzu sozialak bultzatzeko, gurasoek familiarekiko erantzukizunak lanaren erantzukizunekin eta bizitza publikoan parte hartzearekin konbinatu ahal ditzaten, bereziki haurren zaintzarako zerbitzu-sare baten sorkuntza eta garapenaren birtartez;
- d) Emakumeari haurdunaldian arreta berezia eskaintzeko, berarentzat kaltegarri gerta daitezkeela frogaturik dauden lan motetan.

3. Artikulu honetan biltzen diren gaiei buruzko babeslegeria aztertua izango da aldian-aldian zientzi eta teknologi ezagutzen argitan eta berrikusi, indargabetu edo zabaldua izango da, dagokionaren arabera.

## 12. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte medikuguntzaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatze-

ko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, mediku-laguntzako zerbitzuetara iristea bermatzeko xedez, are familiaren plangintzari dagozkionetara ere.

2. Aurreko 1. lerroaldean xedatzen denaren kaltetan gabe, Estatu Kideek haurdunaldi, erditzaldi eta erditondoko aldiarekiko zerbitzu egokiak bermatuko dizkiote emakumeari, doako zerbitzuak eskainiz behar direnean, eta elikadura egokia segurtatuko diote haurdunaldian eta edoskitzaroan.

### 13. artikulua

Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte ekonomi eta gizarte bizitzaren beste esparru batzuetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, eskubide berberak bermatzeko xedez, zehazki:

- a) Famili prestazioetarako eskubidea;
- b) Banka maileguak, hipotekak eta bestelako finantza kredituak lortzeko eskubidea;
- c) Jolas jarduketetan, kiroleetan eta kultur bizitzaren alderdi guztietan parte hartzeko eskubidea.

### 14. artikulua

1. Estatu Kideek kontuan izango dituzte baserrialdeko emakumeak aurre egin behar dien arazo bereziak eta bere familiaren biziraupenean betetzen duen eginkizun garrantzitsua, ekonomiaren sektore ez-monetarretan egiten duen lana barne, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte Konbentzio honetako xedapenak baserrialdeetako emakumeari aplikatzen zaizkiola bermatzeko.

2. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte baserrialdeetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, landa-garapenean eta onuretan, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, parte hartzen duela segurtatzeko xedez, eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diote:

- a) Maila guztietako garapen planen gertaketan eta burutzapenean parte hartzekoa;
- b) Mediku-laguntzako zerbitzu egokietara, are familiaren plangintzari buruzko informazio, aholku eta zerbitzuetara ere, iristekoa;
- c) Gizarte segurantzaren programen onura zuzenean jasotzekoa;
- d) Hezkuntza eta prestakuntza mota guztiak, akademikoak eta ez-akademikoak, hartzekoa, alfabetatze funtzionalari dagozkionak

barne, eta komunitateko eta dibulgaziozko zerbitzu guztien onurak, besteak beste, jasotzekoa ere, bere gaitasun teknikoa gehitzeko xedez;

- e) Elkarlaguntza taldeak eta kooperatibak antolatzekoa, norbere konturako edo besteren konturako enpleguaren bitartez ekonomi aukeretara iristeko berdintasuna izateko xedez;
- f) Komunitatearen jarduera guztietan parte hartzekoa;
- g) Nekazaritza arloko kreditu eta maileguetara, merkaturatze zerbitzuetara eta teknologia egokietara iristekoa, eta nekazal erreforma eta berrezarrera planetan tratu berdina jasotzekoa;
- h) Bizitza baldintza egokiak edukitzeko, bereziki etxebizitzaren, osasun-zerbitzuen, elektrizitate eta ur horniduraren, garraio eta komunikabideen esparruetan.

#### IV. *Zatia*

##### 15. artikulua

1. Estatu Kideek gizonarekiko berdintasuna aitortuko diote emakumeari legearen aurrean.

2. Estatu Kideek gizonaren gaitasun juridiko berbera aitortuko diote emakumeari gai zibiletan, eta gaitasun hori erabiltzeko aukera berberak ere. Zehazki, kontratuak izenpetzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak aitortuko dizkiete emakumeari, eta trataera berdina emango diote justiziako gorteetako eta auzitegietako prozedura-aldi guztietan.

3. Emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen edozein kontratu edo eragin juridikodun beste edozein tresna pribaturi baliogabe iritziko zaiola onartzen dute Estatu Kideek.

4. Estatu Kideek eskubide berberak aitortuko dizkiete gizonari eta emakumeari, pertsonen askatasunez ibiltzeko eskubideari eta euren egoitza eta bizilekua aukeratzeko askatasunari buruzko legeriari dagokionean.

##### 16. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko ezkontza eta famili harremanei dagozkien arazo guztietan eta, zehazki, honako hauek segurtatuko dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan:

- a) Ezkontzeko eskubide berbera;
- b) Ezkontidea askatasunez aukeratzeko eta bere erabakimen aske eta bere baimen osoaz soilik ezkontzeko eskubide berbera;
- c) Eskubide eta erantzukizun berberak ezkontza bitartean eta ezkontza deseginez gero;
- d) Eskubide berberak guraso diren aldetik, beren egoera zibila dena dela, seme-alabekin zerikusia duten gaitan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- e) Seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko aldia askatasunez eta axolaz erabakitzeko eskubide berberak, bai eta eskubide horiek erabili ahal izateko informazio, hezkuntza eta baliabideetara iristekoak ere;
- f) Eskubide eta erantzukizun berberak seme-alaben tutoretza, kurratela, zaintza eta adopzioari dagokionez, edo antzerako erakundeei dagokienez, kontzeptu hauek nazioko legerian agertzen diren guztietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- g) Norberaren eskubide berberak senarra eta emaztea den aldetik, besteak beste, abizena, lanbidea eta ogibidea aukeratzeko eskubidea;
- h) Ezkontide bakoitzarentzako eskubide berberak ondasunen jabetza, erosketa, kudeaketa, administrazio, gozamen eta erabilerari dagokionez, dohainez nahiz kostubidez.

2. Umeen ezkontitzek eta ezkontzak ez dute inolako eragin juridikorik izango eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira, are legegintzazkoak ere, ezkontzeko gutxienezko adina finkatzeko eta ezkontza erregistro ofizial batean inskribatzea nahitaezkoa izan dadin.

## V. Zatia

### 17. artikulua

1. Konbentzio honen aplikazioan egindako aurrerapenak aztertze-ko, Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatze-ko Batzorde bat ezarriko da (aurrerantzean Batzordea deitua). Batzorde hori, Konbentzioa indarrean sartzeko unean, prestigio moral haundiko eta Konbentzioak hartzen duen arloan gaitasun haundiko hamazortzi adituk osaturik egongo da eta, hogeita hamabostgarren Estatu Kideak berrespena edo atxikimendua eman ondoren, hogeita hiru adituk osaturik. Adituak Estatu Kideek beren nazionalen artetik aukeratuak izango dira, eta nor bere izenean arituko dira beren eginkizunetan; kontuan hartuko dira

geografi banaketa berdinkide bat, zibilizazio era ezberdinen ordezkape-na eta sistema juridiko nagusiak.

2. Batzordeko kideak Estatu Kideek izendatutako pertsonen zerrenda batetik hautetsiko dira bozketa sekretu bidez. Estatu Kide ba-koitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere nazionalen artetik.

3. Lehen hauteskundea Konbentzio hau indarrean sartu eta sei hilabete igarotakoan egingo da. Hauteskunde bakoitzaren data baino gutxienez hiru hilabete lehenago, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak gu-tun bat bidaliko die Estatu Kideei beren hautagai zerrendak bi hilabe-teko epean aurkez ditzaten deia eginez. Idazkari Nagusiak era hone-tan izendatutako pertsona guztien zerrenda alfabetikoa prestatuko du, izendatu dituzten Estatu Kideak adierazita, eta Estatuko Kideei he-laraziko die.

4. Idazkari Nagusiak deitu eta Nazio Batuen Egoitzan egingo den bilera batean hautetsiko dira Batzordeko kideak. Bilera honetan, berta-ko quoruma Estatu Kideen bi herenek osatzen dutela, Batzorderako hautetsizat emango dira boturik gehien eta Estatu Kide presente eta botu-emaileen ordezkarien botuen erabateko gehiengoa atera dezaten hautagaiak.

5. Batzordeko kideak lau urtetarako hautetsiko dira. Alabaina, le-hen hauteskundan hautetsitako kideetarik bederatziren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da; lehen hauteskundea egin eta bereha-laxe, Batzordeko Lehendakariak zozketa bidez hautatuko ditu bederatz-i kide horien izenak.

6. Batzordeko bost kide gehigarrien hauteskundea artikulua hone-tako 2, 3 eta 4. lerroaldeetan xedatzen denari atxikiz egingo da, ho-geita hamabostgarren Estatu Kideak Konbentzioaren berrespena edo berarekiko atxikimendua eman ondoren. Aldi honetan hautetsitako kide gehigarrietarik biren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da, bi kide hauek Batzordeko Lehendakariak zozketa bidez izendatuko dituela.

7. Ezustean gerta daitezen kargu hutsak betetzeko, Batzordeko kide-eginkizunak utzi dituen adituaren Estatu Kideak beste aditu bat izendatuko du bere nazionalen artetik, Batzordearen onarpenaren zain geratuko dena.

8. Batzordeko kideek, Batzar Orokorra onarpena eman ondoren, Nazio Batuen fondoetatik jasoko dituzte lanordainak Batzarrak erabaki dezan modu eta baldintzetan, Batzordearen eginkizunen garrantzia kontuan hartuta.

9. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Batzordeak Konbentzio honen arabera dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezko pertsonala eta zerbitzuak zuzkituko ditu.

## 18. artikulua

1. Estatu Kideek behartu egiten dute beren burua, Konbentzio honetako xedapenak betetzeko eta alde honetatik egindako aurrerapenari buruz hartuak dituzten legegintzazko, auzibidezko, administraziozko edo bestelako neurriei buruzko txosten bat Nazio Batuen Idazkari Nagusiari aurkeztera, Batzordeak azter dezan:

- a) Dagokion Estatuarentzat Konbentzioa indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta
- b) Aurrerantzean, gutxienez lau urtebetez behin eta, gainera, Batzordeak eska dezan bakoitzean.

2. Txostenetan adierazi ahal izango dira Konbentzio honetan ezarzen diren beharkizunen betetze-neurriari daragioten faktore eta zailtasunak.

## 19. artikulua

1. Batzordeak bere araudia onartuko du.
2. Batzordeak bere Mahaia hautatuko du bi urtebeteko eperako.

## 20. artikulua

1. Batzordea urtero bilduko da normalean, Konbentzio honen 18. artikuluaaren arabera aurkeztuak zaizkion txostenak aztertzeko. Batzordearen bileren iraunaldia Konbentzio honetako Estatu Kideen bilkura batean finkatuko da eta Batzar Orokorren onarpenaren mempe jarriko.

2. Batzordearen bilerak normalean egingo dira Nazio Batuen Egoitzan edo Batzordeak erabaki dezan beste edozein leku egokitan.

## 21. artikulua

1. Batzordeak, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren bitartez, bere jardueren berri emango dio urtero Nazio Batuen Batzar Orokorri eta izaera orokorreko iradokizun eta gomendioak egin ahal izango ditu, Estatu Kideek helarazitako txosten eta datuen azterketan oinarrituak. Izaera orokorreko iradokizun eta gomendio hauek Batzordearen txostenean sartuko dira, egonez gero, Estatu Kideen oharpenekin batera.

2. Idazkari Nagusiak Batzordearen txostenak helarazitako dizkio Emakumearen Lege eta Gizarte Egoerari buruzko Batzordeari, honen informaziorako.



## 22. artikulua

Erakunde espezializatuek euren jardueren eremuari dagozkion Konbentzio honetako xedapenen aplikazioaren azterketan ordezkaturik egoteko eskubidea izango dute. Batzordeak erakunde espezializatuak eskatu ahal izango die Konbentzioak euren jardueren eremuari dagozkion arloetan duen aplikazioari buruzko txostenak aurkeztea.

## VI. Zatia

## 23. artikulua

Konbentzio honetan xedatzen den ezerk ere ez du eraginik izango gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera hobeto eraman eta hurrengo osatzen duen ezein xedapenetan:

- a) Estatu Kide baten legeria, edo
- b) Estatu horietan indarrean dagoen beste edozein nazioarteko konbentzio, itun edo hitzarmen.

## 24. artikulua

Estatu Kideek, Konbentzio honetan aitorturiko eskubideak bete-betean burutzeko, nazio mailan beharrezko izan daitezen neurri guztiak hartzeko konpromezua hartzen dute.

## 25. artikulua

1. Konbentzio hau Estatu guztiek izenpetzeko irekita egongo da.
2. Nazio Batuen Idazkari Nagusia izendatzen da Konbentzio honen gordailuzain.
3. Konbentzio hau berrespenari loturik dago. Berresteko tresnak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatuko dira.
4. Konbentzio hau Estatu guztien atxikimendura irekita dago. Atxikimendua Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan atxikimendu tresna bat gordailatuz egingo da.

## 26. artikulua

1. Estatu Kideetako edozeinek Konbentzio honen berrikuspena eskatu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen idatziaren bitartez.

2. Nazio Batuen Batzar Orokorrak erabakiko ditu eskabide horri buruz, hala badagozkio, hartu behar izan daitezen neurriak.

## 27. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean sartuko da Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu dadin egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.

2. Hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatua izan ondoren Konbentzioa berretsi edo berari atxiki dakion Estatu bakoitzarentzat, Konbentzioa indarrean sartuko da Estatu horrek bere berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu duen egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.

## 28. artikulua

1. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak jaso eta jakinarazi egingo die Estatu guztiei, berrespen edo atxikimendua egiteko unean Estatuak adierazitako erreserben testua.

2. Ez da onartuko Konbentzio honen xede eta helburuarekin batezina izan dadin erreserbarik.

3. Edozein erreserba kendu ahal izango da edozein unetan Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako berarizko jakinarazpen baten bitartez, eta honek horren berri emango die Estatu guztiei. Jakinarazpen honek eragina izango du jaso dadin unean.

## 29. artikulua

1. Bi Estatu Kideren edo gehiagoren artean, Konbentzio honen interpretazio edo aplikazioari buruz, sortu eta negoziazio bidez konpon ez dadin edozein eztabaida tartekaritzaren menpe jarriko da haietako batek eskatuta. Sei hilabeteko epean, tartekaritza eskearen aurkezpen egunetik kontatzen hasita, aldeak tartekaritza horren erari buruz ados jartzen ez badira, aldeetako edozeinek Nazioarteko Justizia Gortearen erabakipean jarri ahal izango du eztabaida, Gortearen Estatutuari atxikiz aurkeztutako eskabide baten bitartez.

2. Estatu Kide orok bere burua artikulua honen 1. lerroaldeak dioenari lotzera beharturik ez dagoela aldarrikatu ahal izango du Konbentzio hau izenpetu edo berretsi edo berari atxikitzeko unean. Gainerako Estatu Kideak ez dira lerroalde honek beharturik egongo erreserba hori egin duen ezein Estatu Kideren aurrean.

3. Artikulu honetako 2. lerroaldean aurrikusten den erreserba adierazia duen edozein Estatu Kidek atzera kendu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari horren berri emanaz.

### 30. artikulua

Konbentzio hau, bere testuak, arabiera, txinera, espainera, frantses, ingeles eta errusieraz idatziak, orobat kautoak direla, Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatuko da.

HORREN LEKUKOTZA EMANEZ, azpian ageri direnek, behar bezala baimenduta, sinatu egiten dute Konbentzio hau.

# Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak, 9 zk.

Emakumeen Eskubideak Giza Eskubideak dira. Emakumeen Eskubiderik gabe Giza Eskubideak ezin dira gauzatu. Baten batek esaldi hauek sobera daudela pentsa dezake, Giza Eskubideak emakume eta gizon guztiei dagozkielako. Hala ere, ez dugu ahantzi behar historian zehar orain gutxi arte adierazpen hauek ez direla onartu. Hauxe da koaderno honen abiapuntua eta horretarako gai desberdinak jorratuko dira: Giza Eskubideen bilakaera, Nazio Batuek emakumeen eskubideak bermatzeko burutu dituzten ekimenak, Eskubide Politikoak, emakume eta instituzioen arteko harremana eta alderdi politikoei buruzko azterketa.

**Arantxa Elizondo Lopetegui** Soziologian lizentziatua eta Politika-Zientzietan doktorea da. Egun Euskal Herriko Unibertsitateko Politika-Zientzietako irakaslea da. Emakumeen egoera politikoari buruzko ikerketa ugariak egin ditu, baita instituzio politikoen arloan ere. Bere argitalpenen artean bi azpimarra daitezke: *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (1999) eta *Mujeres en Política* (1997). Horretaz gain, azken urteotan Mugimendu Feministako kide gogotsua izan da.

